

Jasangarria da itsasotik datorren turismoa?

GURUTZAONTZIAK Uribe Kostan



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonia: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno,
Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Amaia Arriaga, Gorka Mostajo, Aitor Esteban,
Itxaso Paya, Kerman Santiago, Nerea Olaziregi,
Izei Azkue, Xabier Buenetxea, Eunete Muruaga,
Izaskun Rodriguez, Nahikari Ayo

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Gurutzaontziak, kalte ala



Aurkibidea

- 4 Gurutzaontziak: kea dario eztabaidari
- 12 Eskolako hegiak
- 13 Naturaren behatokitik
- 14 Hizkuntzaren zalantzategia
- 15 Gatz-ozpinetan
- 16 Hirudika: 36ko gerra, Berangon
- 28 Idoia Ibarlucea Elosegui, Berbalagun egitasmoaren dinamizatzailea Erandion
- 32 Virginia Diaz arraunlaria, Joko Olinpikoetara
- 33 Higinio Rivero piraguista, Joko Paralinpikoetara
- 34 Mundukatuak: Olatz Garaizar, Tokion
- 35 Txangoak: Elantxobetik Ogoño lurmuturrera
- 36 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak

22




Eskualdeko nekazaria baserritarren testigar

mesede?



4

36ko gerraren birsorkuntza Berangon



16



**ak: lau
ntzak**

28



**Idoia Ibarlucea Elosegui:
«Berbalagunak onurak ekar
diezaieke euskara-ikasleei»**



32

**Joko Olinpiko eta
Paralinpikoetarako
UK-ko kirolariak**



Gurutzaontziak Getxon: kea dario eztabaidari

Badira urte batzuk begien parean duzen irudiak nobedadea izateari utzi ziola Uribe Kostan. 2006an zabaldu zuten Getxon Bilboko Portuaren gurutzaontzientzako terminala. Hogei ontzi inguru ailegatu ziren gurera estreinaldiko urte hartan; 2020rako, berriz, 60 etortzea aurreikusi da, iaz bezalatsu. 85.000 bisitari inguru, gure eguneroko bizimoduan askorik igarriko ez ditugunak. Orain, batzuek mahai gainean ipini dute turismo-mota horren beste inpaktu baten gaineko eztabaida: kutsadura. Aurten argitaratu diren zifra batzuk kezkatzeko modukoak dira, izan.

A

rtean XXI. mendea hasi barik zegoen lehenengoz gurutzaontzi bat Abrako uretara ailegatu zenean, Santurtziko portura orduko hartan. 1995. urtea zen, eta hiru urte geroago izan zen bigarren bisita. Ia hamarkada bat geroago, 2006an, bidea zabaldu zen mota horretako ontziak gurera sarri-sarri etortzeko; urte hartantxe inaguratu zuten gurutzaontzietarako Getxoko terminala, Bilboko Portuan itsasadarren eskumako aldean daukan bakarra. Eusko Jaurlaritzak ia hamahiru milioi euroko inbertsioa egin zuen eraikuntza horretarako.

Orain dela urte bi, 2017an, geltoki berria eraiki zuten, *Olatua* izenekoa, ontziok hartzeko gaitasuna zuena. Horren kostua 4,6 milioi eurokoa izan zen (BEZ kontuan izan barik), eta beste milioi bat erabili zen pasabide mugikor bat egiteko. Terminal zaharra eraiki ondorengo lehenengo urteetan hogeit bat gurutzaontzi heltzen ziren Getxora urtero; gaur egun, berriz, 50-60 izaten dira.

Eman berri dizkizuegun datuak EH Bilduk aipatu zituen joan den uztailaren 24an, Getxoko Udalaren osoko bilkuran aurkeztutako mozio baten azalpenean. Koalizioaren eskari zehatza zen Udalak ingurumen-inpaktuko azterketa bat abiaraztea gurutzaontziei dagokienez, «kostaldean eta getxoztarren osasunean zer-nolako eragina» duten jakiteko. Azterketa hori burutu arte Bilboko Portu Agintaritzari eta Eusko Jaurlaritzari gurutzaontzien sektorea gehiago ez sustatzeko eskatzea zen EH Bilduren mozioaren bigarren helburua. Podemosek alde bozkatu zuen eta Udaleko beste hiru indarrek (EAJ, PP, PSE-EE) aurka; mozioa ez zen onartu.

ZENBAT KUTSATZEN DUTE GURUTZAONTZIEK? Hilabete bat lehenago, ekainean, gurutzaontziek Europan eragiten duten kutsaduraren gaineko txostena argitaratu zuen garraio-konpantetan diharduen Transport & Environment (T&E) gobernu kanpoko erakundeak. Argitaratutako kopuruak arreta deitzeko modukoak izan ziren, kutsatzaile zehatz bati dagokionez: sufre-oxidoak. Hain zuzen, T&Ek esan zuen ontzi gehien duen konpainiak, Carnival-ek, 2017an atmosferara igorri zuen substantzia horien kopurua Europako auto denek igorritakoa baino hamar bider handiagoa izan zela.

Carnivalek dituen 47 gurutzaontzi egindako emisioak aztertu zituen T&Ek. Hau da, 47 ontzik 260 milioi autok baino askoz gehiago (hamar halako!) sufre bota zutela ondorioztatzen da zeresan handia eman zuen txosten hartan. Hori guztia, beste konpainietako ontziak kontuan hartu barik. Denera, 143 gurutzaontziren emisioak ageri dira xehatuta azterketan, ez bakarrik sufre-dioxidoarenak, emaitza ikusgarrienak alde handiz konposatu horiei dagozkienak badira ere.



Gurutzaontzi-konpainiek ukatu egin dituzte

Araudia ez-nahikoa

Transport & Environment GKEak azpimarratu du kutsadura-datuak handiak direla azken urteetan Europan itsas trafikoaren sufre-emisioak gutxitzeko araudia indarrean ipini arren. Ontzien erregaia autoenak baino askoz sufre gehiago izatea da arrazoietakoa bat.

T&Eren esanetan, azken urteetan sufre-igorpenak murrizteko indarrean ipinitako arau berriak ere ez da lortu gurutzaontziek kutsatzaile horren kopuru kezagarriak aireratzeari uztea, hobekuntzarik izan arren. Bestalde, GKEak dio esku-eskura dugula ontzion inpaktuak desagerrazteko behar dugun teknologia. Hain zuzen, ingelesezko siglen arabera SSE izenez ezagutzen den lehorreko elektrizitatea aipatzen dute euren txostenean. Horren bitartez, kaian gelditu dauden ontziek aukera lukete argindar-sarera konektatu eta ekipo denak kar-

Uribe Kostako AEK EMAN IZENA!

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
 Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
 Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
 Gortiz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan

EUSKARA - IKASTAROAK

Gurutzaontziek erabiltzen duten erregaiak 3.500 bider sufre gehiago dauka automobilenak baino.



euren ontzien eragindako kutsaduraz T&E elkarteak aurten zabalduko datuak, balioztatze zientifikorik izan ez dutela argudiatuta.

gatzeko, erregaia kontsumitzeko beharrik gabe (gaur egun jatzoten den legez). Haatik, T&Ek salatzen du europar legedia ez dela behar bezain zorrotza: kontinenteko portuetan SSE teknologia egotera behartzen du, baina bere kostuarekiko onuragarria den kasuetan baino ez. Azken batean, emaitza da oso gutxi zabaldu dela teknologia hori, batetik, inork ez duelako inbertsioa egiten duen lehenengoa izan gura (ontzien ugazabek ez dituzte SSEra egokitzen portu gutxitan dagoelako erabiltzeko aukera; portuek ez dute teknologia instalatzen oso ontzi gu-

2006

urtean inauguratu zuten Getxon gurutzaontzietarako terminala. Hasieran urtero 20 bat ontzi etortzen ziren, 2017an kai berria egiteaz geroztik kopurua hirukoiztu egin da.

txik erabiltzen dutelako); bestetik fiskalitateak ez du pizgarrik ematen, kontrakoa baino: lehorreko argindarragatik zergak ordaindu beharra dago, itsasoan erregaiak erabiltzeagatik ez.

Uztailean Getxon egindako osoko bilkuran, EH Bilduk txosten hori aipatu zuen zuhurtziaz jokatzeko arrazoi nagusi modura. T&Eren azterketan ez da ageri Getxon gurutzaontzi-trafikoak eragindako kutsaduraren gaineko daturik, bai ordea Europako hiri esanguratsu askotan. Denetan Bartzelona nabarmentzen da. Kataluniako hiriburuko portua ez zen izan azterketaren urtean, 2017an, gurutzaontzi gehien jaso zuena (Lisboari egokitu zitzaion ohore hori, gutxigatik bada ere), ez eta ere ontziok portuan ordu gehien eman zutena (alde handiz, Greziako Pireo gailendu zitzaion horretan), baina bai sufre-konposatuen igorpen gehien neurtu zirena.

Orain dela bost urte inguru RTVEren webgunean argitaratutako artikulu batean irakur daitekeenez, Bartzelonara ailegatzaren diren gurutzaontzien kutsadura hiritik 400 kilometrorara ere igartzen da, zenbait talde ekologistaren esanetan. Kasu horretan aipatzen den kutsadura ez da sufreak eragindakoa, partikula astunen ondoriozkoa baino. Hala ere, iturri berek adierazi zuten gurutzaontziek erabiltzen duten erregaian askoz ere sufre gehiago dagoela automobilenetan baino; zehazki, 3.500 bider gehiago.

GETXO EZ DA TXIKIENETAKOA. T&Eren txostenean Europako portuen zerrenda luzea ikus daiteke (62, denera), orain dela urte bi horietako bakoitzetik igaro ziren gurutzaontzi-kopurua adierazita. Datuei begira ondoriozta daiteke Getxoko terminala ez dela ontzi gehien hartzen duenetakoa, baina sailkapenaren beheko aldean ere ez dagoela inondik inora. Urte hau amaitu orduko mota horretako 50 ontzi inguru izango dira Abran geldialdia egin dutenak, eta 2020an 60 espero dira, gutxi gorabehera 2018an legez.

Konparazioak egite aldera, T&Ek aipatutako portuetatik, (asko sona eta tradizio handikoak), bederatzi baino ez zen gainditu 70 bisitaldien zifra. Kopuru handiena, esan dugunez, Lisboakoa izan zen: 115. Eta hura izan zen Bartzelonagaz batera 100etik gora ibilitako bakararra. Aldiz, askok eta askok hartu dituzte gutxi gorabehera Getxok bezainbeste ontzi, eta ez dira gutxi haren aldean sano apal ibili direnak ere.

T&Ek emandako kopuruetatik ezin daiteke korrelazio argirik ondorioztatu sufrezko kutsaduraren eta ontzi-kopuruaren artean, ezta ontziok portuan ematen duten denboraren artean ere. Hori dela eta, nekez egin liteke estrapolazio guztiz fidagarriak Abrara datozkigun gurutzaontziak zenbatze hutsetik abiatuta (nahiz eta denen kasuan, portuetan neurtzen den kutsatzaile horren kantitatea hiri bereko autoek botatzen dutena baino askoz handiagoa izan).

Behin hona helduta, komeni da aipatzea gurutzaontziek oso geldialdi laburrak egin ohi dituztela portuetan. Arlo horri dagokionez bai, Getxoko informazioa dugu, Bilboko Portu Agintaritzak emandakoa: «Gurutzaontziak goizez portura ailegatu



**Ander Deuna
ikastolak**
50!
urte

Urriak 26, zapatua,
11:30etik aurrera

**Omenaldi
eguna**

www.anderdeunaikastola.eus
info@anderdeuna.eus

11:30-12:00 **Harrera**
12:00-13:00 **Omenaldia**
13:00-14:30 **Lunch Musikatua**
14:30-15:00 **Photocall**
15:00-17:00 **Ikasle Ohien Bazkaria***
17:00-20:00 **Kontzertua**

* Bazkari txartela eskuratzeko: 25€
Kutxabank_ES64 2095 0307 10 9105147109
(Erreferentzia bezala izen-abizenak idatzi, mesedez)



**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA



**IKASTOLEN
ELKARTEA**

Gatzarriñe, 47
48600 SOPELA
946 76 02 66

eta eguna bertan ematea da arruntena; 08:00etatik 19:00etara, gutxi gorabehera. Ez da ohikoa gaua bertan ematea, hala izan dadin lanean bagabiltza ere». Portuak berak kaleratutako 2018ko memoriak dio urte horretan etorritako 59 gurutzaontzietatik zazpik egin zutela gaua Getxoko kaian. Bide batez esateko, denera 86.500 bidaiari ekarri zituzten ontzi horiek (aurten 70.000 izan dira), terminala existitzen denetik kopururik altuena.

Kalkulu erraz batek adierazten digu batez beste 1.460 pertsona inguru etorri zirela bidaia bakoitzean, baina azpimarratzekoa da tamainari dagokionez alde handia egoten dela gurutzaontzi batetik bestera. Aipatzekoa da, konparazio baterako, aurtun Getxon izandako *Celebrity Edge*, 3.918 bidaiari eroan ditzakeena; beste batzuetan, berriz, ehunka batzuek «baino» ez dute bidaiatzen. Gure itsas bazterrera hurreratzan den jende-olde horrek uzten duen arrastoaz, bereziki inpaktu ekonomikoaz, geroago egingo dugu berba.

T&E-REN TXOSTENAGAZ ADOS EZ. Gurutzaontzi-enpresek T&E-ren txostenari emandako erantzunak ez du inor ustekean.

Zer-nolako turismoa gura dugu?

«Kutsadura aztertzeaz gain, planteatu beharko genukeena bestelako turismo-eredu batzuk bultzatzea da, dirua xahutzea oinarri ez dutenak», esan zuen Ina Robles Podemoseko zinegotziak uztailaren 24an gaiaz egindako osoko bilkuraren eztabaidan.

bean harrapatu: emaitzak ukatu dituzte. Gurutzaldiak antolatzen dituzten konpainien nazioarteko elkarteak (CLIA) txostena argitara eman eta ia berehala adierazi zuen zientzialariek behar bezala balioztatu barik zabaldu zirela haren ondorioak, eta egileen usteen arabera direla ondo egindako neurketen arabera baina.

Gainera, CLIAk azpimarratu zuen etorkizunean «zero emisio» egiteko konpromisoa duela, eta daborduko helburu horretarantzko pauso ugari eman dituela, ontzi asko egokituz edo egokitzen hasiz. Gurutzaontzien trafikoa itsasontzi-trafiko osoaren %1 baino gutxiago dela ere nabarmendu zuten. Transport & Environment GKEak, bere aldetik, azterketan erabilitako metodologia defendatu zuen; izan ere, txostenaren hasierako orrialdeetan metodologia horren azalpen mardula ageri da (ingelesezko bertsioan baino ez, dena esatera).

Getxori dagokionez, ingurumenagaz zerikusia duten hainbat parametro (airearen eta uraren kalitatea, zarata...) aztertzen dituela erantzun die Bilboko Portuko Agintaritzak HIRUKAk egindako galderei, «eta jakina, Getxoko gurutzaontzien geltokian ere egiten ditugu analisi horiek». Portuaren

Politikariek esanak

Joseba Arregi EAJ



«Gurutzaontziak Bilboko Portuko itsas trafikoaren %1,7 baino ez dira; airearen kalitateak kezkatu behar gaitu, ez kutsadura nork eragiten duen. Eta Bilboko Portuak egiten dituen azterketek bermatu dute airearen kalitatea ona dela».

Javier Elorza PP



«Gurutzaontziak ezbaian jartzen hasi behar badugu zer egingo dugu, Bilboko Portu osoa itxi? Indartu egin behar ditugu aberastasuna sortzeko bitartekoak, eta aldi berean gurutzaontziek gutxiago kutsatzeko bideak aztertu».

Nerea Guijarrubia EH Bildu



«Datuak egon badaude, baina ez dagozkie Getxori zehazki. Beste portu batzuetara ailegatzen diren gurutzaontziek zenbateko kutsadura eragiten duten ikusita, ezinbestekotzat dugu hona datozenek zenbat eta zelan kutsatzen duten jakitea».

GETXOKO XVII. KOMIKI AZOKA XVIII SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO



JARDUERAK / ACTIVIDADES

Sinatze-txandak, hitzaldiak, erakusketa, fanzineak...
Firmas, charlas, exposición, fanzines...

ROMO KULTUR ETXEA · Santa Eugenia Plaza, 1

SARRERA DOHAINIK
Edukiera bete arte.


ENTRADA GRATUITA
Hasta completar aforo.

AREETAKO GELTOKIA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

Ordutegia / Horario: 11:00-14:30 / 17:00-21:00

Igandea / Domingo: 11:00-14:30 / 17:00-20:00

www.salondelcomidegetxo.net



berbetan, neurketetan lortutako emaitzetatik ezin daiteke ondorioztatu gurutzaontziak dauden egunetan kutsatzaile batzuen kopuruak (SO₂, PM₁₀) gora egiten duenik, ez Areetako ezta Algortako neurtze-estazioetan ere.

«**LEGEAK EZARRITAKO MUGEN BARRUAN**». Antzeko argudioak erabili zituzten Getxoko Udaleko gobernu-taldean dauden alderdiek uztaillaren 24an egindako osoko bilkuraren eztabaidan. PSE-EEko Carmen Diazek, adibidez, EH Bilduko ordezkariari esan zien azterketak egon badaudela, «legediak horretara behartzen duelako, eta emaitzak bilatzen badituzue ohartuko zarete balioak ez direla oso desberdinak Getxora gurutzaontziak ailegatzen direnean, eta legeak ezarritako mugen barruan daudela beti». Edozein kasutan, mozioak eskatzen zuen ingurumen-inpaktuaren azterketa udal baten eskumenetatik kanpo dagoela ere argudiatu zuen Diazek, eta horixe zela ezezkotua emateko beste arrazoi bat.

Joseba Arregi EAJren ordezkariak, berriz, Bilboko Portuaren ingurumen-estrategia guztiz egokia zela adierazi zuen, «portu batez berbetan gabiltzala ahaztu barik». Arregik fokua guru-

86.500

bidaia-erori ziren iaz Getxora, 59 gurutzaontzietan, inoizko kopururik handiena. Horrek esan gura du batez beste 1.460 lagun etortzen direla ontzi bakoitzean, baina alde handia egoten da batetik bestera.

260 milioi

T&E gobernu kanpoko erakundeak egindako neurketen arabera, Europako auto denek (260 milioi) baino hamar bider sufre-oxido gehiago isuri zuten 2017an. Carnival konpainiaren 47 gurutzaontziek. Kopurua askoz handiagoa da, noski, aztertutako 143 ontziak kontuan hartuz gero.

tzaontzietan ipintzea ere aurpegiratu zion EH Bilduri: «2018an 50 gurutzaontzi egon ziren, eta portu osoan guztira 2.925 ontzi ibili ziren; gurutzaontziak % 1,7 besterik ez ziren. Airearen kalitateak kezkatu behar gaitu, ez kutsadura nork eragiten duen. Horri buruzko azterketak egin egiten ditu Bilboko Portuak, eta ondorioa da airearen kalitatea bermatuta dagoela». Ildo bere-tik, gurutzaontziak eta gainerako itsas trafikoa bereiztearen aurka agertu zen PPK alderdiko ordezkaria.

BESTE INPAKTUA: BIDAIA-ERIEK UTZITAKO AZTARNA. Mozioa aurkezteagaz batera gaiaren inguruan zabalduko bideo labur-rean, EH Bilduk dio gurutzaontzietako bidaia-erien % 70 ez dire-la ontzitik jaisten portuko egonaldiak irauten duen bitartean. Izan ere, datua bideo horretan txertatuta dagoen ETBren albiste batetik ateratakoa da, eta ez dago oso argi nondik datorren, baina bat etor daiteke gurutzaontziak batez beste terminaletan geldirik egoten diren denbora laburra izateagaz.

ETBren albiste horretan bertan, Getxoko Kirol Portuko os-talariren bat agertzen da, gurutzaontzien etorrerak berebiziko onurarik ekartzen ez diola adieraziz, are guxiago ontzi bakoitzean ehunka edo milaka lagun etortzen direla kontua izanda. Bestela esanda, hutsaren hurrengoa sartzen dela bertako ta-bernetara. Datu zehatzik ez dago, hala ere.

Gaiaz galdetuta, Bilboko Portu Agintaritzak honako hau dio: «Zaila da zifrak ematea, baina kalkulatu egin da gurutzaldi baten erdian dauden bidaia-eriek (hau da, bidaia Getxon hasi edo amaitzen ez dutenek) batez beste 125 euro gastatzen du-tela eskala bakoitzean; bidaia berton hasten dutenen kasuan, berriz, 200 euroraino handitzen da kopurua». Ez dute zehaz-tu gastu hori non egiten den. Bestalde, ilaz Getxon izandako 86.500 gurutzaontzi-erabiltzaileetatik, 3.000 baino gehi-xoa-go izan ziren bidaia hemen hasi edo amaitu zutenak. «Kopuru hori handiagoa izan dadin lanean ari gara», azaldu dute Por-tuko iturriek. ◀

Carmen Diaz PSE-EE



«Ingurumen-inpaktuaren azterketak egitea ez da udalen eskumena, eta beste administrazioek egiten dituzten neurketek diote airearen kalitatearen balioak ez direla aldatzen gurutzaontziak datozenean».

Ina Robles Podemos



«Datuk kezkarriak dira. Inork ez du esan legea betetzen ez denik, baina gehiago egin badaiteke, zergatik ez egin? Bestetik, ezin dira berdin baloratu turistak dakartzaten ontziak eta janaria dakartzatenak».

LAGUN BAT GONBIDATU
ETA ZOZKETAN PARTE HARTU!

Zure inguruko norbait zurekin batera Mintzalaguna irateko nahiko zenuke? Zure baretik! Bidaia postak hain pertsona bati eta gonbidatu ezazu Mintzalagunaren mundara. Lasterren duzun postala erabiltuz argazki bat alera eta mintzalaguna@egizu.eus helbidera bidaltzen badizu, lasterke baten asteburu pasa hobari dezake!

Kaixo, Nere,
Jendearekin egotea gustuko duzunez, eta
ahobizi itzela zarenez, zergatik ez zara
animatzen aurten Getxoko berbalagunean?
Astean behin ordubetez besterik ez :)

Gainera, zozketa batean parte hartuko
dugu biok, telefonoz azalduko dizut hobeto.
Muxuak, Iratxe

IZEN EMATEAK URRIAN ETA URTARRILEAN

Nerea Elorriaga
Bidebarri 31, 1 ezk
48991
Algorta

WWW.MINTZALAGUNA.EUS

egizu

WWW.EGIZU.EUS

Iritzia **Saltsan****Kanpomartxoren ajea**

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA Herri-langilea



Duela 25 urte luze, 1994an, Erandioko lagun-talde batek Berbots Erandion Euskaraz elkarte sortu eta lehen Kanpomartxo eguna antolatu zuen Faoetan, herriko beste hainbat elkarteren laguntzarekin. Aspaldiko ohitura bat berpiztearekin batera, herriko euskaldunak batzeko eta elkar ezagutzeko aitzakia ona izan zitekeela pentsatu zuten lagun horiek, gehienak AEKn euskaldundutakoak.

Euskaraz bizitzeko hautua eta apustua eginda, beharrezko guneak eta giroa sortzeari ekin zioten gogotsu, eta Kanpomartxorekin asmatu egin zuten. Jaiegun erakargarri bilakatu da herrikoentzat zein inguruetaoentzat. Umetan dantza-taldeen eskutik hurreratutakoek, gaztetan lagunekin eta gero seme-alabekin etortzen jarraitu dute. Horrela, gero eta gehiago batzen garenez, herriko auzo batzuk txiki geratu zaizkigu, eta lanak handi.

Berbotsek Erandioko eta inguruetao euskaldun eta euskaltzaleentzat topagune bat eraiki du, auzolanean eta elkarlanean oinarrituta. Herri-izaera indartzeko ere baliagarria izan da, erandioztar askok Kanpomartxori esker ezagutu dituelako herriko auzoak. Horregatik esango nuke, Kanpomartxorekin, Berbotsek asko eman diola Erandiori.

Baina, jende uholdeak itoko ote gaituen nago: erdara indartsu entzuten dugu bertara bildutako euskaldun askoren ahotan, gero eta zailago da administrazioak jartzen dituen baldintzak betetzea, Berbotseko ekintzaile gehienok gaztetasun askotxo pilatu dugu, eta errelebo nahikorik ez alboan.

Uste dut momentua dela hausnartzeko zelan egin aurrera. Ala atzera egin behar dugu? Ematekoa eman du? Onuragarri zaio euskaltzaleon mugimenduari? Euskaldun eta euskaltzaleen bilgunea izateko, euskara gutxiegi entzuten dugu bertan. Baina gutxi hori ez ote gure herrian egunerokoan entzuten dena baino gehiago? Gazteagoek hartuko dute lekukoa?

Iritzia **Ideien sokadantz****Kaixo lagun guztiok...**

GORKA MOSTAJO GALDUROZ Gizarte-langilea



Kaixo lagun guztiok, gu gara... hauteskundeak. Txistulariek «Gora ta gora» ederki jo zuten eta Ortuzar kriston mitina botatzen hasi zen Alderdi Egunean: «Euskal haserrealdiaren aurrean, euskal boza». Ni, euskal boza erabiliko duen euskal haserrealdiaren parte naiz. Bai, aitortzen dut gogaituta naukala espainiar politikak, zirkua da eta egunero dena okerrago-ra doa. Espainiako politikan, ideien lekuan, burutazioak daude, eta ez dago diskurtsorik, esloganak baizik (edo txioak, kasurik onenean). Gutaz dabiltz barrezka hizketan. Espainiako ezkerreko blokearen erruz hauteskundeak errepikatuko direla iragarri zenetik (munduan ez da kokolorik, ez zeruian ere, eurek bezain gaizki eginen luketenik) askotariko burutazioak entzun ditut, baina kasualitatea, guztiak alderdi espainiarren mesedetan.

«Bozkatzera ez joatea merezi dute». Ez dakit merezi duten baina guk ziur ez dugula merezi bozkatzera ez joatea. Zin dagizuet gu ez bagoaz, ez dela inor joango gure ordez. Ez joatea krisi hau eragin dutenen mesedetan litzake. Herri modura, gu ixiltzeko mediorik ez du inork asmatu, beraz ezin etxean geratu.

Beste burutazio bat: «Gastu handia da, ez dut uste etxeetara publizitatea bidali beharko luketenik». Gastua hauteskundeak zentzu gabe errepikatzea da, baina bi sasipolitikariren erruz hala egin behar bada... Ziur nago biek onartuko luketela gastu elektoralaren gaiarekin demagogia egitea, azken finean ohiturazko telebista eta irratietan uneoro darabiltzate ahoan PSOE eta UP. Zelan sar daitezke beste alderdiak gure etxeetan gutun bitartez ez bada?

Badago politika serio hartu eta gurea defendatzera doana, horregatik, Madril en kaña ematen duen batzokiko rock and rollarekin geratuko naiz. Eta ez, ez nago drogatu, joan den asteazkeneko Hertzainaken kontzertu bikainari bueltaka besterik ez. Politikara itzuliz: hau dena aldatu nahi nuke. Aurrera Aitor Esteban eta aupa Hertzainak!

Puntua eta kontrapuntua **Itsaso bidezko turismoa Uribe Kostan****Gurutzaontziak**

Atzo kolonoak, gaur
turistaren moda:
abordajera datoz
Txipre zein Bilbora.
Dirua patrikara,
kaka itsasora;
negozio borobila
ez dugu egingo, ba?
Lur planeta berri bat
erosi ahalko da!

AITOR
ESTEBAN
ETXEBARRIA
Itzubaltzeta/Romo



Txanpain-burbuilak eta
mozkorrak kantuan;
turistak oporretan
poz-pozik barkuan.
Kutsadura gehiago
ezin da batu han.
Zoritxarrean, Aitor,
ez nire hautuan,
Lur planeta berririk
ez da merkatuan!

ITXASO
PAYA
RUIZ
Algorta



Lehen/Orain **Mendibile (Leioa)**



ITURRIA: EUSKALTZAINDIA

Erretratua **Edorta Román Ibáñez-Labusta** Meteorologoa

Deia-n, Radio Popularren eta El Mundo-n egiten du eguraldi-iragarpena egunero. Mende laurden daroa atmosferari begira 1970ean jaioetako fisikari sopoloztarrak.

TESTUA: KERNAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Meteorologo onak dira, Edorta Románen berbetan, es-tudioetara heltzen diren datuak interpretatzen daki-tenak eta iragarpenak asmatzen %80ko efizientzia dutenak. Atmosferaren egoeraren berri ematen diz-kieten eredu meteorologiko-informatikoez asmatzeko %70eko probabilitatea baino ez dute. «Ni busti egiten naiz beti», esan digu sopoloztarrak.

Mende-hasieran Sirimiri enpresa sortu zuen, gaur MeteoBit izena duena. Hiru langilek osatzen dute taldea, eta software eta paperean ebatzizako ekuazioen artean egiten dute lan Sopolako bulegoan. Noticias taldeko hedabideakaz ez ezik, Vocento taldeko zenbait egunkarigaz ere jarduten dira noizbehinka; ABC eta El Correo-gaz, besteak beste. Gainera, Baleuko telebis-

**«Metereologo onak dira
heltzen diren datuak
interpretatzen dakitenak
eta iragarpenak asmatzen
%80ko efizientzia dutenak»**

ta-produktoragaz «eguraldi-gizon birtual» bat sortzen saiatzen dabil Román, *avatar* bat, alegia. Eguraldi-iragarpena telebis-tan egiteak gastu handia dakarrela azaldu digu, eta produktua «etorkizuneko berrikuntza» izango delakoan dago.

Gauden-gaudenean, meteorologoak ez du beste albo batera begiratzen klima-aldaketaren auzian: «Planeta salbatu nahi badugu, trantsizioa egin behar dugu; eguzki-energia eta ener-gia eolikoa sustatu, esfortzu ekonomikoa oso handia izango bada ere». Hala ere, Románek adierazi digu ez datorrela bat Nazio Batuen Erakundeak emandako datu denakaz: «2100ean itsas-maila metro bat baino gehiago igoko dela esatea ez zait egokia iruditzen, ziurgabetasun handia dago oraindik». ◀



Eskolako hegiak Nerea Olaziregi

Hezitzaileok ere erdigunean egon behar dugu



Hezitzaileok egunero aurrera eramaten ditugun iraultza txiki eta handiak erdigunean jarri nahi ditut. Metodologia zaharkitu, testuliburu eta etxerako lanen gainetik, bestelako hezkuntza-sisteman sinesten dugu askok, sorgin-ehiza eta eskola publikoa zaindu beharko luketenen utzikeria gertu sentitu arren.

Aurreko ikasturtean, martxoaren 8ko grebaren hari-
ra, *Itzaletik argira* erakusketa antolatu genuen Eran-
dioko Altzaga ikastolan. Ekimen horrekin, itzalean
dauden emakumeak erdigunean jarri nahi izan geni-
tuen. Haur eta gazteek, lantzen ari ziren proiektuarekin lotuta-
ko emakumeen biografiak idazteaz gain, etxekoak eta etxe-
koen zaintzaz arduratzen direnenak ere argira ekarri zituzten.
Egun gutxian, ikastolako hormetan, besteak beste, astronau-
tak, baserritarrak, abuelak, zientzialariak, izekoak, eskulto-
reak, amamak, artistak, etxeko langileak, ile-apaintzaileak,
idazleak eta amak agertu ziren.

Gure txanda heldu zen gero. Ikastolan lan egiten dugun
hezitzaileok (irakasle, jantokiko begirale eta premia bereziak
dituzten umeei dauden profesionalak) gure eguneroko la-
nean itzaletik argira ekarri nahi genituen kontuak mahai gai-
nean jartzera ausartu ginen. Ariketa polita izan zen. Eta zaila.
Ikusten ez dena ez da existitzen. Kontatzen ez dena ere ez. Eta
zenbat kostatzen zaigun «gu»-ri buruz hitz egitea.

EMOZIOEI IZENA JARTZEN. Hala ere, oraingoan, ezin tenta-
zioari eutsi. Aurreko batean gertuko pertsona batek esanda-
koa iltzatuta geratu zait buruan: «Nerea, zu kazetaria izanda,
nolatan amaitu duzu pixoihalak aldatzen?». Isilik geratu nin-
zen. Agian, horregatik, gure lana goraiatu beharra. Agian,
gurea ere, emakume-aurpegia duen lan bat izanda, gutxi ba-
loratzen delako.

Duela zortzi urte hasi nintzen Haur Hezkuntzan lanean.
Hemen, Altzagan. Orduan ez nituen nire emozio batzuk iden-
tifikatzen. Haserre eta tristura adibidez, nahastu egiten
nituen. Eta bigarrena onartzea kostatzen zitzaidan. Beldu-
rra niola uste dut. Haurrekin ikasi dut emozio batzuei izena
jartzen eta kudeatzen. Baita ere, norbera eta taldea, alegia,
«ni»-a eta «gu»-a, txanpon beraren bi aldeak direla. Eta bete-
zea hustea dela.



Zirkulazio librea

«Ikasi dut partxis-itxurako pasabide
eta gelen orde, guneek kolore neutro
eta naturalak behar dituztela. Eta
hutsuneak. Zirkulazio librearen
autonomia eta gaitasun-mota askoren
garpena bermatzen ditu».

BESTELAKO EREDUAK. Behaketan eta entzuketan ere trebatu
naiz. Itxaroten ikasi dut. Eta isilik egoten, oraindik kostat-
zen zaidan arren. Ikasi dut hezitzaile eta haurren arteko
harreman afektiboaren balioa. Eta ez dagoela ondo ala txarto
margotzen edo dantzatzeko duen inor. Estereotipoetatik kan-
po, bestelako ereduak behar ditugula denok. Izan nahi dugun
hori izateko, aurreiritziak eta epaiak alboratu behar ditugula,
begirada kritikoa izan eta eremu segurua eraiki.

Hezkidetzak ez dela egun zehatzetan eskola puntu morez
eta lelo hutsez betetzea; «Ezetz ezetz da» esaldiak ez duela
zentzurik ezetz esaten ikasten ez badugu eta zailagoa dena,
ezetza onartzen ez badugu. Eskola parte-hartzailea eta plura-
la posiblea dela, bitartekoak eta baliabideak jartzen baditugu.
Urriaren 12an, Hispanitatearen egunean, inposatzen diguten
egutegian gorri agertu arren, ikastola jendek betetzea posi-
blea dela; Mari Domingi ez dela Olentzeroren laguntzailea eta
rappelatzen eta patinatzen oso trebea dela; elkarbizitza osa-
sungarria izatea protokoloak martxan jartzea baino askoz ere
biziagoa eta sakonagoa dela.

HUTSUNEEN BALIOA. Ikasi dut partxis-itxurako pasabide eta
gelen orde, guneek kolore neutro eta naturalak behar dituz-
tela. Eta hutsuneak. Zirkulazio librearen autonomia eta
gaitasun-mota askoren garapena bermatzen dituela eta irudi-
mena mugatzen duten plastikozko jostailu egituratuen orde,
askoz ere aberasgarriagoak direla pentsatzeko eta sortzeko
materialak, berrerabiliak badira hobeto.

Eta bai, pixoihalak aldatzen ere ikasi dut. Egutegia 35 bat
aldatzen ditut, eta une pribilegiatu eta berezi horren balioaz
jabetu naiz, haurren eta hezitzailearen arteko errespetu-
ko eta elkarlanerako harremana sendotzeko aukera paregabe
horretaz. Bestelako hezkuntza-sisteman sinesten dugunok he-
gan saiatu gara. Batzuetan taldeka, besteetan bakarka, baina
gure ilusio, neke, kontraesan eta zalantzeekin, bagoaz... ◀



Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Hasi da udazkeneko dantza baso-zelaietan

Uda amaituta, hegazti askok hemendik alde egin eta latitude beroagoetara jotzen dute, aurten jaiotako kume askorentzat biziraupen-ariketa garrantzitsua izango den negua igarotzera. Paisaiak, berriz, berde biziagoetara eta kolore gorri-horien nahaspilara joko du.

Trantsizio-sasoia da naturan. Udarekin batera, beroa, argia eta eguraldi onbera amaituz doaz, eta apurka-apurka iluntasuna, hotza eta nor bere barnera begiratzeara nagusitzen hasi dira ingurune naturalean eta gure paisaian. Zuhaitzak, beren erloju biologikoak emandako oharrei kasu eginez, utzi egingo diote adarretara izerdia bidaltzeari, eta hostoek berdetik marroira eta horixkara egingo dute, gure landetako paisaia eraldatuz.

Basoan gabiltzala, adarrek osatutako zutabeak behatuko ditugu, eta haren sabaian habe hutsak, udaberrian teilaz beteko direnak, kolore berdeko hostoz alegia. Hezetasuna pilatu egiten da orbel berriaren geruza lodian, aurreko urteetan erori eta honezkero ustelduta dauden hostoen gainean. Geruza horrek gure pausoak hartzen dituen zoru biguna osatzen du, kolorez, tonuz eta ñabarduraz betea; sasoi honetan, zuhaitzen goiko aldean hostorik ez egoteak eguzkiaren argia zuzena jasotzeko aukera emango dio. Basoa lasai dago egunez. Anfibiok eta narrastiek hibernatu egiten dute, zenbait ornogabeko eta mikro-ugaztunek bezala.

Baina ez gaitezen arinegi joan... Oraindik ere trantsizioa gertatzeke dago, eta Ama Lurrak gauza asko du guri erakusteko eta gozarazteko, zalaparta apaldu ahala. Fruitu-sasoia da, eta zuhaitz eta zuhaixka askok beren uzta ematen dute, udaberrian eta udan lan handiz ondu dutena. Gaztaina, ezkur, masusta, garangorri, elorri, sagar, piku... Fruitu horiek animalia askori lagunduko diete janaritegia betetzen, eta neguaren erronka latza gainditzeko koipea sortzen. Hori dela eta, atzera datoz gure baso eta lantzarretara alaitasuna eta oparotasuna; sasietan eta zuhaitz txikietan lanez gainezka dabiltza fruituz eta aiez elikatzen diren hegazti txikiak, ornogabeekin batera.

Ugaztun txikiek ere, urtxintxa gorriak eta basasaguak esaterako, soberakina aprobetxatzen dute, eta handiek (azeriak, azkonarrak eta lepazuriak) dieta aldatzen dute aldi batez. Horregatik, urria eta azaroa oraindik garai egokiak dira egun



CC BY SA-HEDERA.BALTICA

Joan-etorri betetako sasoia

Ugaztun txikiek, urtxintxa gorriak (argazkian) eta basasaguak esaterako, fruitu-soberakina aprobetxatzen dute garai honetan, eta handiagoei (azeria, azkonarra...) dieta aldatzen dute aldi batez. Urria eta azaroa garai egokiak dira zuhaixka baten atzean ezkutatuta gaudela joan-etorri horiei guztiei begira gozatzeko.

atseginez gozatzeko, zuhaixka baten ondoan ezkutatuta gaudela joan-etorri horiei guztiei begira. Gainera, ugaztun horietako asko gaztetxoak dira, eta haien konfiantzak aukera emango digu behaketak hurbilago egiteko.

Trantsizio hori bizi igartzen da migrazioan. Urtero errepi-katzen da fenomeno, eta milioika hegazti mugiarazten ditu, haien indarrak neurtuz. Udakoak udaberrian etorri ziren hemen ugaltzera eta ondoren hegoalderantz joaten dira; sedentarioek urte osoa ematen dute bertan, eta negutarrak, berriz, inguru honetan negua emateko ailegatzen dira, iparraldeko lurretan hotzak eragiten duen elikagai-faltari ihes eginda. Honenbestez, udazkenean oraindik alde egin ez duten udako batzuez eta dagoeneko ailegatu diren negutar batzuez gozatu ahal izango dugu.

Gure kokapena dela eta, Iberiar penintsula zeharkatzeko hegaztiak erabiltzen duten pasabide garrantzitsuenetako batean gaude. Badago fenomeno behatzeko jarduera egokirik: ekaitza eta haizea dagoen egunetan itsas hegaztiak ikustera joan kostaldeko irtenguneetara, esaterako Galea muturrera, Barrikara edo Billano lurmuturrera (azken talaia hori da gomendagarriena, galeriak kontserbatu egin direnez hotzaz eta euriaz babestu gaitzke eta); hegazti negutarrak eta migratzaileak behatzea Abran, Txipioko paduran, Bolueko hezegunean edo Lamiakoko kaian; itsasertzeko landetan eta zuhaiztietan ibiltzea ere modu ezin hobea izan daiteke behaketa-egun eder-rak igarotzeko, hegazti askok atseden hartzeko beharra baitute itsasotik heldu ostean.

Bestalde, animalia asko aktiboagoak izaten dira neguan, eta horrek aukera emango digu errazago ikusteko. Hala da basoko zenbait anfibioen kasuan, arrabioa edo igel hankaluzea esaterako; baita ere urubi izeneko hontz zalapartatsuen kasuan, edo belatz handiarenean. Basoko zenbait zuhaixkak, hala nola gorostiak eta erratzak, giroari kolorea emango diote euren fruitu gorriez. ◀



KALITATEA BIKAIN TASUNA INNOVACIÓN CALIDAD DESDE 1963 EXCELENCIA BERRIKUNTZA IDIOMAS SOCIALES CIENCIAS DBH GUARDERÍA JANTOKIA KIROLAK DANTZA AUZOLANKOOPE RATIBOAMUSIKA BERTSOLARITZA

www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Algorta

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Udan egin duzuna, ala udan zer egin duzun?



Amaitu dira oporrak, gehienontzat behintzat, eta bueltan gara berriro ere. Itzuleran ohikoa izaten da udan bizi izandakoak elkarbanatzea. Hortaz, sarritan entzungo zenituzten honelakoak: «Zer moduz pasa duzu uda? Kontatuko didazu egin duzuna?». Horra hor zalantza: egin duzuna, ala zer egin duzun?

Askotan, inguruko erdaren eraginez, zehar-galderaz emateko diren esaldi batzuetan erlatibora jotzen da. Horrek arriskua dauka, izan ere, esan nahi denaz bestelako zerbait esatea ere gerta daiteke. Esaterako, ondorengo esaldietan garbi ikusten da ez direla gauza bera: «Esadazu nahi duzuna» eta «Esadazu zer nahi duzun». Kontua da sarriegi aurkitzen ditugula lehenbizikoaren tankerakoak, bigarrena esan nahi denean. Hona hemen esandakoaren zenbait adibide: *Ez dakigu gertatu dena (Ez dakigu zer gertatu den), *Hark esango dizu egin behar duzuna (Hark esango dizu zer egin behar duzun).

Baina erdarak gure egunerokoan hain barneratuta ditugun honetan, nola jakin zein egitura den egokia? Bada, gaztelaniazko esaldiari «lo» kendu eta gero geratzen denak aurreko esanahi berbera badu, euskara zuzenean zehar-galdera erabili beharra dago. Honatx: *No sabes lo que dices = No sabes qué dices* = Ez dakizu zer esaten duzun. Jarraian, ikus dezagun zeintzuk diren zehar-galderak gobernatzen dituzten aditzetako batzuk: galdetu, esan, jakin, erabaki, igarri, sumatu, antzeman, ohartu, konturatu, ikusi, begiratu, aztertu, beldur izan, dudatan jarri, eztabaidan egon, garbi izan, gogoratu, ahaztu, kontuak atera, irakatsi, erakutsi, zain egon...

ZENBAIT SALBUESPEN. Dena den, hizkuntzekin ari garenean, ezin esan dezakegu beti horrela izan behar duenik. Badira salbuespenak, jakina, eta baliteke zenbaitetan erlatibozko esaldia eta zehar-galdera, bi-biak, zuzenak izatea. Hori bai, argi izan behar dugu hainbatetan ez dutela esanahi bera izango: deskribatu zer ikusten ari zaren (ez dakigu zer ikusten ari zaren) eta deskribatu ikusten ari zarena (badakigu zer edo zer ikusten ari zarena, baina ez dakigu nolako den).

Hala ere, egon badaude esanahi aldetik hurbiltzen diren esaldiak, bai erlatiboa bai zehar-galdera erabilia: «Kalkulatu diodotik pasatzen den korrantea» = «Kalkulatu zer korron-

Ondorengo esaldietan garbi ikusten da ez direla gauza bera: «Esadazu nahi duzuna» eta «Esadazu zer nahi duzun». Kontua da sarriegi aurkitzen ditugula lehenbizikoaren tankerakoak, bigarrena esan nahi denean: *Ez dakigu gertatu dena (Ez dakigu zer gertatu den); *Hark esango dizu egin behar duzuna (Hark esango dizu zer egin behar duzun).

te pasatzen den diodotik/Kalkulatu zenbateko korrantea pasatzen den diodotik». Kontua da horietan ere zehar-galderak erabiltzera jo beharko genukeela, erlatibozko perpausak luze-luzeak izan daitezkeelako. Gaztelaniazko esaldia ulertzeko ez da aparteko arazorik izaten, erlatiboaren bidez ematen bada ere: «Indicad el número de alumnos/as que pasarán a cuarto curso si las previsiones de sus tutores/as se cumplen». Baina era berean euskaratzen badugu, alegia, erlatibozkoari eutsita itzultzen badugu (eta hori izaten da joera), esaldia ulergaitza da: «Zehaztu (ezazue) tutoreek iragarritakoa betetzen bada laugarren mailara pasatuko diren ikasleen kopurua» (????).

Ez dugu ahaztu behar hizkuntzen helburu nagusia komunikatzea dela, eta bide horretatik jo behar dugula, ulergarritasuna bermatzeko. Zehar-galdera baliatuta zertarako horretara hurbiltzen gara: «Zehaztu (ezazue) **zenbat ikasle** pasatuko diren laugarren mailara tutoreek iragarritakoa betetzen bada».

Azkenik, aintzat hartu behar dugu batzuetan, erlatibozkoa agerian ez badago ere, galderak implizituak egoten direla (oso ezkutatuta, zenbaitetan) erdarazko esaldietan. Horrelako kasuetan ere, egokiago ematen dira euskaraz zehar-galderak erabilia: «Hemos de decidir la ubicación de la sala de informática» = «Erabaki behar dugu **non kokatu** informatika gela»; «Ten en cuenta la gran disposición del sindicato para negociar» = «Kontuan hartu **zein prest** dagoen sindikatua negoziatzeko»; «Es conveniente evaluar los progresos individuales del alumnado» = «Komeni da ebaluatzea **zer/nola/zenbat** aurreratu duen ikasle bakoitzak»; «Consensuaron los plazos del desarrollo de la nueva ley» = «Adostu zuten **zer epetan** garatu lege berria». Zehar-galdera erabilia, gainera, nominalizazio-estiloaren gehiegikeria saihesten dugu (hurrengo atal batean arituko gara horren inguruan), eta estilo jator eta naturalagoa bultzatu.

Ematen dizkigun aukerak ikusita, eman diezaiozun zehar-galderari merezi duen erabilera, ulergarritasunaren mesedetan bada ere. ◀

J.A. AGIRRE Euskaltegia
Heldu Euskarari! 2019-2020 Ikasturtea / Curso

6-16 Urteko gazteentzat / Para jóvenes de 6 a 16 años
ASTEAN 3 ORDU / 3 HORAS SEMANALES
Astelehen eta asteazken / Astearte eta ostegun
Lunes y miercoles / Martes y jueves
17:30 - 19:00

16 Urteetik gorakoentzat / Para mayores de 16 años
MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE
AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN
CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXAMENES OFICIALES LOS SABADOS

Matrikula zabalik! Bulego ordutegia/ Horario de oficina: 09:30-13:30 17:00-20:00

Algotako etorbidea 104, 48991 Algorta (Getxo) 944 606 671 www.jagirre.eus idazkaritza@jagirre.eus



Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Piperminak: ausartuko zara pikantea dastatzan?

Munduan askotariko elikagai pikanteak aurki ditzakegu eta bakoitzak bere ezaugarri eta propietateak ditu. Hemen ikusiko ditugunak piperminaren familiakoak dira. Piperrok egin dezaketan kaltearen inguruan berba asko egin den arren, kalte baino onura gehiago ekartzen dute hainbat arrazoiengatik.

Piper pikanteek norberaren osasunean egin dezaketan kaltearen inguruan berba egin da askotan; hala ere, kaltegarriak baino osasungarriak izaten dira gehienetan, hainbat arrazoiengatik. Piper denek mikronutriente eta zuntz-kontzentrazio handia daukate, eta horri esker ase gaudenaren sententzia ematen digute. Bitamina-iturri handia ere badira; laranjek baino hiru aldiz C bitamina gehiago daukate, eta horiei esker Albert Szent-Gyorgyik bitamina hori sintetizatzea lortu zuen. Gainera, duten zuntz-kantitateari esker, piperrek idorreria ekiditen laguntzen dute; era berean, odolaren kolesterol- eta azukre-mailak kontrolatzen laguntzen dute, baita koloneko minbizia saihesten ere.

Piperrei zapore pikantea ematen diona kapsaizina izeneko alkaloidea da. Antibiotiko naturala da, nahiko eraginkorra; berari esker, piperminak egindako platerak hobeto kontserbatzen dira. Efektu analgesikoa dute, eta artritisiari aurre egiteko erabiltzen dira. Askok pentsatzen dute urdaila gaixobera duten pertsonentzat kaltegarria izan daitekeela piperrok kontsumitzea, baina neurrian janez gero digestioa egiten laguntzen dute. Bide batez esateko, Scoville eskalaren arabera neurtzen eta klasifikatzen da min-maila.

ONURA ASKO, MOTA UGARI. Ameriketako aztekek uste zuten piperrok afrodisiakoak zirela, eta behin zapore mina gaindita ongizate-sententzia zekartela (burmuinean endorfinak ekoiztea eragiten dutelako gertatzen da hori). Horretaz aparte, odolaren zirkulazioa aktibatu egiten dute eta gizezkoen ugalkortasuna ere hobetzen dute.

Herrialde bakoitzean pipermin mota ezberdinak aurki ditzakegu, baina ezagunenak Mexikon aurkitzen dira. Den-denok ezagutzen dugu tabasko-saltsa eta, noski, tabasko-piperra Mexikokoa da. Bertan piper pikantearen mota asko aurki daitezke; txilea, han deitzen dioten bezala. Ezagunenak jalapeñoa, habaneroa, tabaskoa, txile gorria eta serranoak dira; horietan



Osagaiak
Jalapeño piper beteak
Jalapeño piperrak, hirugiharra, gazta eta okela birrindua.


pikanteena habaneroa da. Hala ere, denen artean nahasketak egin dituzte eta hala, hainbat txile-mota sortu izan dira azken urteetan: *Carolina Reaper*, *Dragoi-hatsa*, eta munduko piperrik pikanteena, *Pepper X*. Beste herrialde batzuetan ere piperminak aurki ditzakegu: Pakistaneko Naga, Tailandiako Thai piperra, Indiako Naga Jolokia....

FRESKO EDO LEHORTUTA. Piperrok modu bitara kontsumitu daitezke, bai fresko baita lehortuta ere. Elikagai gehienak gertatzen den bezala, oso ezberdina da modu batean edo bestean erabiltzea. Egia esanda, nik nahiago dut fresko jatea, modu horretan daukaten zaporea atseginagoa egiten zaidalako. Hala ere, hainbat plater prestatzeko lehortutako piperminak erabiltzeak asko errazten ditu prestaketa-lanak, curry bat egiteko orduan, kasu. Gainera, lehortuta denbora luzeagoan kontserba ditzakegu piperrok, izoztu beharrik gabe.

Denen artean, jalapeñoa da niretzat piperminik onena, sukaldaritzan hainbat erabilera izan ditzakeelako. Hala, errezeta zaporetsu eta erraz bat ekarriko dizuet orriotara: jalapeño piperrak, okela eta gazta beteta. Zelan egiten diren jakin gura? Has gaitezen, bada! Lehenengo, jalapeño piperrak garbitu eta hustu behar dira. Horretarako, nik T formako ebakera egiten diet, horiek hustu eta ondoren ixteko aukera erraza ematen duelako. Hala ere, nahi bezala ireki daitezke piperrok. Ondoren, jalapeñoak betetzeari ekingo diogu. Nik kantitate berdina ipini ohi dut, erdia gazta eta erdia okela. Behin piperrak beteta, hirugiharraz bildu eta den-dena itxita utzi beharko dugu. Segituan, aurretik 180 graduan berotutako labean sartuko ditugu jalapeñoak eta bertan izango ditugu 40 edo 50 minutuz. Kontuz ibili behar dugu azkenengo pauso horretan, ordu erditik aurrera piperrak erre daitezkeelako; eginda daudenean labetik atera, aurretik ezarritako denbora bete ez bada ere. Erraza, ezta? Piperminen munduan murgiltzeko aukera paregabea duzue hau; espero dut zuen gustukoa izatea. On egin! ◀



AINGARA
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...



A man in a military uniform, including a flat cap and a light-colored tunic with suspenders, is sitting on a wooden crate. He is positioned next to a vintage machine gun mounted on a tripod. The machine gun has a long barrel and a visible ammunition belt. In the background, there is a stone wall and a red flag with white text that includes 'Compania' and '1937'. The scene is set outdoors on a paved surface.

36ko gerraren atzeguardia eta frontea...

Lur-zakuak, kanoiak, metrailadoreak, morteroak, kanpaina-ospitaleak, errefuxiatutako umeak... Gerra-garaian murgildu zen irailaren 23an Berangoko erdigunea, 1937ko ekainean bizi izandakoak birproduzituz. Udalerriko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren zazpigarren urtemuga ospatzeko ekitaldia izan zen hori, eta hainbat elkartek parte hartu zuten, hala nola Frentes de Euzkadi eta Lubakikoak.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: HODEI TORRES ▶



Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren zazpigarren urteurrena ospatzeko ekitaldia

Bosgarren urtetik aurrera, memoria historikoagaz lotutako ekimenen bidez ospatu dituzte Berangoko udal-museo horren urteurrenak. Oraingoan, historia jendearengana hurbildu gura izan dute arduradunek, 36ko gerra garaiko birsorkuntza udalerrriaren erdigunean eginez, hau da, «historia bizia» esaten zaion hori.







Ebakuazioak,
gerra-frontea eta
atzeguardiako
ospitalea.

1937ko ekainean apurtu zuten frankistek Burdin Hesia Larrabetzu aldean. Hala, gerra-fronte horretan jazotako zauritu asko artatu behar izan zituzten Berangon. Une horiek gogorarazteko Frentes de Euzkadiko lagunek gudarien artilleria gune bat osatu zuten Berangoko elizaren ondoan, baita kanpaina-ospitale bat eta gerratik ihes egiteko umeak ebakutzeko postu bat ere. Lubakikoak taldekoek, aldiz, gerra-garaiko Ertzañaren aginte-postua irudikatu zuten, besteak beste.









Eskualdeko baserritarren argi-itzalak

Uribe Kostako gazteen gehiengoa hirugarren sektoreari begira lanean jarri den arren, oraindino badago lehenengoari heldu dionik. Horren adibide batzuk ekarri ditugu orriotara; batzuek eskualdetik kanpora joan behar izan dute, beste batzuek, aldiz, inguruotan lurra lortzeko «zortea» izan dute. Izan ere, nekazaritzaren munduan murgiltzeko eta horretan aurrera egiteko zailtasun handienetako bat da lursail egoki bat topatzea, epe luzerako. Hona hemen ingurutako lau baserritarren testigantzak...

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: HODEI TORRES ▶

Ana de la Maza Baserritarra Garain

«Gaur egun ez dakigu benetan zer jaten dugun; arazo handia da hori»



Denetarik egiten du Ana de la Mazak Garaiko baserrian, hala nola ortuarietz betetako otzarak, zukuak, garagardoak eta kontserbak.

Uribe Kostan eta inguruetan lurra lantzen ibili ondoren, Durangaldeko Garai aldera egin du salto Ana de la Maza baserritar getxoztarrak. Zortzi urteko ibilbidearen ondoren, profesionalizatzearen aldeko pausoa eman du duela hilabete bi: «Garrantzitsua da hori, etorkizunera begira batez ere».

Ingurugiro-osasuna goi-mailako zikloa ikasi ondoren, jaten dugunaren garrantziaz jabetu zen Ana de la Maza gazte getxoztarra. Era berean, Euskal Herrian produzitzeko «lur oso onak» eduki arren gure dieta osatzen duten elikagai gehienak kanpotik inportatutakoak direla ikusi zuen: «Arazo handia dugu elikaduran, ez dakigu benetan zer jaten dugun».

Horri aurre egin guran, lagun batzuk bildu eta bere produktuak ekoizteari ekin zion de la Mazak duela zortzi urte Derion alokatutako solo batean. «Hasieran denbora-pasa bat baino ez zen, *hobbie* moduko bat. Bertan ikusi nuen lurrak asko ematen zuela, eta ezinezkoa egiten zitzaidan produzituko dena etxean kontsumitzea. Hala, Algortara joaten nintzen tomate- eta piper-poltsaz lepo». Lehenengo sektoreagaz aurreneko kontaktu hori eginda, proiektu handiago bati heldu zion beste neska bigaz: Solotxu. Uribe Kostan nekazari-eremu gutxi dago, eta bazekien zaila izango zela lur bat aurkitzea.

Bila eta bila ibili ondoren, «zortea» izan zuten, Erandioko Txakoli Motaganeko ugazabak bere lurrak utzi zizkielako nekazaritza eta baserri-mundua ezagutzeko gunea eraikitzeke. Hala, sasoiko produktuak ekoizten hasi ziren bertan, esperimentatzeko txokoa osatu zuten eta urtebetetzeak zein tailerrak ere antolatzen zituzten. «Gu hasiberriak ginen, eta oso proiektu handia

Kostaldea nahiago
«Uribe Kostako lurrak idealak dira ekoizpenerako; klima epela da bertan, barrualdean, aldiz, gogorra»

Lanbide neketsua
«Askotan pentsatu izan dut bulego-lan batera bueltatzea, nekazaritza oso lan gogorra delako, etekin askorik gabekoa. Baina ez dut nahi»

zen. Horren ondorioz, gure arteko harremana apur bat zakartu egin zen», dio getxoztarrak. Hala ere, nekazaritzarekiko maitasuna bere horretan zirauen beraren bihotzean, eta segituan proiektu berri bati ekin zion Garain.

Bikotekideak lurrak zituen Durangaldeko inguru horretan, eta bertan zeuden pinudiak bota ondoren, askotariko fruta-arbolak landatu eta ortua osatu zuten, besteak beste. Ordutik bertan bizi da, lurrak emandakoez bizitzen. Denetarik lantzen dute bertan, ondoren sasoiko ortuariakaz otzarak banatzeko inguruko gazteen artean. Era berean, zukuak, marmeladak, garagardoak eta kontserbak egiten ditu, baita abereetatik lortutakoak ere. Azaltzen duenez, «kostata» hartu zuen eskualde batetik bestera joateko erabakia. Izan ere, Uribe Kostako lurrak ekoizpenerako «idealtzat» ditu: «Klima epela da bertan; barrualdean, aldiz, gogorra, oso hotza neguan eta oso beroa udan».

BASERRITARREN LAN GOGORRA. Baserritarraren lana gogorra dela aitortzen du Getxoko gazteak, «egunero lan egin behar delako eta etekinak, askotan, murrizak direlako»; hala ere, azpimarratzen du «inondik inora» ez lukeela oraingoa bulegoko lan batez aldatuko. Zortzi urteko ibilbidea egin du de la Mazak leku batetik bestera, Garain finkatu arte. Bide horretan, askotan pentsatu izan du ea noiz emango zuen saltoa profesional bilakatzeari, eta duela hilabete bi egin zuen pausoa. «Oso garrantzitsua izan da erabaki hori, nire etekinak ez direlako oso altuak. Dena den, garrantzitsua da kotizatu ahal izatea, baina zaila da nekazaria eta «legala» izatea. Dendetan eta azoketan saltzeko sanitatego baimena izateko beharrezkoa da autonomoetan alta ematea, eta dagoeneko nik lortu dut hori dena». ◀

Peio Fuente Nekazaria Urdulizen

«Lurra lortzea zaila izango ez balitz, baserritar gehiago egongo litzateke»



Peio Fuenteren arabera, produktu ekologikoek eta hurbilekoek oso eskari handia dute gaur egun.

Uribe Kostako Agroasanbladako kidea da Peio Fuente nekazaria. Otzaren bitartez eta Itzubaltzeta/Romoko merkatuan saldu ohi ditu Urdulizen landutako produktuak. Uda partean, gainera, bendeja egiten du Itzubaltzetako elizako arkupeetan.

Peio Fuente baserritarra 2013an hasi zen Itzubaltzetako elizako arkupeetan udako bendeja saltzen. Urte horretan hurbildu zitzaizkion udaltzainak lehenengo aldiz bertatik botatzera; hala ere, bertan jarraitu eta normaltasun osoz segitu du urtez urte 2018ra arte. Iazko abuztuan udaltzainak etorri zitzaizkion eta Getxon kale-salmenta debekatuta dagoela ohartarazi zioten. Aurtengo abuztuan, saltzeko zuen dena konfiskatu zioten. Hala ere, bertan jarraitu du, astelehenero, bendeja saltzen, joan den irailaren 15era arte. Fuentek dioenez, uzta-sasoi emankorrenetan (abuztuan eta irailean) soberako ortuariak saltzeko aukera on bat da bendeja. Izan ere, urtean zehar Urdulizko soloan landutako produktuak otzaren bitartez saltzen ditu; Itzubaltzeta/Romoko Branka herriko tabernan banatzen ditu, eta udako sasoi horretan taberna hori itxita egoten denez, elizako arkupetan egiten du banaketa. «Hala, bertan zain nagoen bitartean, inguruan pasatzen denari ortuariak saltzeari ekin nion».

Eguenero, gainera, auzo horretako merkatuan postutxoa izaten du Fuentek, eta bertan saltzen du ekoiztutakoaren zatirik handiena: «Hasiera batean, nire produkzio gehiena otzaretara bideratuta zegoen; gaur egun, ordea, merkatuan saltzen dut gehiago. Bertan jendeak aukera dezake zer nahi duen;

Gertuko produktuak
«Nabaritzen hasi da gizarteak garrantzia ematen diola gertuko produktuak kontsumitzeari»

Bendeja, borrokan
«Legalitatearen ikuspegitik baino, logikatik heldu beharko genioke. Bendeja egitea guztiz zilegi dela uste dut, hemen eta edonon»

otzaretan, aldiz, sasoi horretako produkzioaren arabera jasotzen dituzte produktuak.

BENDEJA EDO PLAZA EGOKI BATEN BEHARRA. Fuentek azpimarratu duenez, inguruko hainbat udalerritan bendejak eta plazak berreskuratzeko saiakerak egiten dabiltza. Getxon, aldiz, kale-salmenta debekatuta dago eta oraindik ez dago aurreikusita bendeja erregulatzeko araudirik. Itzubaltzetako baserritarrak ohartarazi duenaren arabera bendeja legeztatzeke modu bat Udalarai baimen bat eskatzea da: «Baimen bat izatea eskatzen digute, baina ez dut eskatu ezinezkoa zaidalako Udalak eskatzen duenari aurre egitea. Gizarte Segurantzaren doakion erregimenaren barruan alta eman behar dugu, aseguru bat kontratatu... Ez du merezi gastu horiei denei aurre egin behar badiegu».

LURRA ESKURATZEKO ZAILTASUNAK. Nekazari jarduteko zailtasun handienetako bat da lantzeko lur bat aurkitzea. Fuentek «urte piloa» daroa baserritar modura lanean, «baina askotan mugitu behar izan dut leku batetik bestera eta ezin izan dut epe luzerako proiektu bat garatu». Bakion zegoela, esplotazio-alta ematea lortu zuen beste hainbat kidegatz batera. «Salmentarako baimena genuen, baina kontuak ez ziren ateratzen». Orain Urdulizko solo batean dabil, baina ezin izan ditu hainbat berme lortu: «Nire asmoa da den-dena profesionalizatzea, baina lehenago baldintza zehatz batzuk bermatu behar ditut, hala nola epe luzerako leku bat izatea, ondoren proiektu sakon bat bideratzeko». Zailtasunak zailtasun, Uribe Kostako Agroasanblada goraitatu du Fuentek, «elkarri laguntzen diogu, auzolanak egiten ditugu eta hainbat proiektu garatu ditugu». ◀

Beñat Bilbao Nekazaria eta abeltzaina Getxon

«Abeltzaintzak ez dauka irtenbide askorik gaur egun, oso garestia da»



Baserritarra izateko zailtasun handienetako bat lurra eskuratzea dela dio Beñat Bilbao baserritarrak.

Gaztetatik eman zituen nekazaritzaren munduan lehenengo pausoak Beñat Bilbao algortarrak. Lagun-taldeagaz ortua izan ondoren, baserritarraren munduan bete-betean murgiltzea erabaki zuen, eta Yauri Etxaldean dabil gaur egun, ortua lantzen eta abereak zaintzen, besteak beste.

Gaztetan Algortako Hezetasuna auzoan ortutxo bat lantzen ibili zen Beñat Bilbao, lagun-taldeagaz. Pixkanaka-pixkanaka nekazaritzaren sekretuez jabetzen hasi eta, lorezain modura lanean zebilela, horretaz bizi gura zuela erabaki zuen. «Beti izaten nuen buruan ea lur-zati bat aurki nezakeen soloa egiteko», dio Bilbao. Hala ibili zen, han eta hemen, lursailaren bila, Yauri Etxaldeko Juanan aurkitu zuen arte: «Urte luzez ibili naiz beragaz lanean, ahal nuen guztian laguntzen, bera jubilatzen den arte. Joan den abendutik ofizialki bertoko soloaz eta abereez arduratzen naiz».

Aitortzen duenez, «zortekoa» da bera, Getxoko Bolue hezegunearen atzealdeko lur-eremu horretan behar egiteko aukera izan duelako; izan ere, dioenez, lurra lortzea da zailena nekazaritzaren bizimoduari ekiteko: «Sola serio hartuta bizitza aurrera atera daiteke, lurretan gastu handi-handirik ez baduzu; bestela, oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren». Hala ere, bestelako aukerak ere badaudela dio, barbarako Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen landa-lurzorua funtsa: «Gaur egun lur-eremu handi bi daude Loian, 6.000 metro koadrokoak, alokairu oso duin baten truke, baina ez ditu inork hartzen. Egia da baldintza zehatz batzuk bete beharra dagoela horiek eskuratzeko: profesionalizatzea, proiektu bat garatzea eta

Lurra eskuratzea
«Sola serio hartuta bizi daiteke, lurretan gastu handiegirik ez baduzu; bestela oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren»

Abeltzaintza, gogorra
«Abereak mantentzea oso garestia da, eta horietatik lortzen ditugun produktuak oso merke saldu behar ditut»

aldi bateko segimendua egitea, besteak beste».

Produktu ekologikoak edo kilometro zero elikagaiak modan jarri diren arren, gaur egun baserritarrek dituzten beste zailtasunetako bat euren ekoiztutako produktuak erregulartasunez saltzeko leku aproposak ez daudela dio Bilbao. Era berean, bezero gazteak lortzea erronka handia dela azpimarratzen du: «Neska-mutil gazteak denda handietara joaten dira erosketak egitera, erosotasunagatik edo. Nik hemen etxaldean dugun txokoan saltzen ditugun gauza denak adinean aurrera egindako jendeak erosten ditu batez ere. Interes handiagoa dute helduagoek baserrikoak diren produktuak erosteko». Ortuak emandako produktuak Yauri Etxaldean saltzen ditu Beñatek, baina baita norbanako askori ere. «Zorte handia dut kasu honetan ere, Juananen bezero-poltsa jaso dudalako. Bestela, oso zaila izaten da produktua merkaturatzea». Horrez gainera, produktuak kalean saltzeko plaza edo bendeja egiteko lekuen beharra azpimarratu du baserritar getxoztarrak, «baina leku horiei garrantzia eman behar zaie; ezin dira aspaldiko huts berdinak egin. Beharrezkoa iruditzen zait profesionalizatzea, bestelako edozein lanbideguz berdindu ahal izateko».

URIBE KOSTAKO AZKEN ABELTZAINAK. Ortua lantzeaz gainera, abeltzaina ere bada Bilbao. Gaur egun 30 behi, astoak, untziak, oiloak eta txerriak ditu, besteak beste. Hala ere, abeltzaintzaz lortutakoa oso murrizta dela aitortzen du: «Animalien gaiak ez dauka irtenbiderik. Oso garestia da mantentzea eta horietatik lortzen ditugun produktuak oso merke saldu behar ditut. Animaliak bizimodua ateratzea zaila da». Getxoztarrak uste du horregatik ez dagoela abeltzain askorik eskualdean. ◀

Haizea Bengoetxea Nekazaria eta kontserba-egilea Gamiz-Fikan

«Azoketara joateko ohitura gero eta txikiagoa da orokorrean»



Hasieran soloa lantzen eta kontsumo-taldeetan ibili ondoren, kontserbetan oinarritu du bere bidea Bengoetxeak.

Unibertsitateko ikasketak amaitu ondoren, aitite eta amamaren baserrira bizitzera joan zen Haizea Bengoetxea getxoztarra. Nekazaritzan lehenengo urratsak eman zituen bertan, familiagaz, eta orain Gamiz-Fikan lekutu du lantokia, Olatxuko Laboreak proiektuari ekiteko.

Nekazaritza-ingeniaritza amaitu eta segituan argi izan zuen Haizea Bengoetxea getxoztarrak baserritik bizi gura zuela, «lurrarekin kontaktu horri eusteko». Hala, 2011n, aitita-amamaren etxera bizitzera joan zen, Olatxu baserrira: «Nekazaritzatik bizi nahi nuen, modu agroekologikoan, eta horretarako lehenengo kontaktua familiako baserrian eman nahi nuela argi nuen». Bertan eman zituen lehenengo pausoak, eta soloan landutako dena kontsumo-talde baten bitartez saltzen zuen.

Baserrian fruta asko zegoela ikusita, aterabide bat emateko kontserbak egiteari ekin zion; horixe izan zen gaur egun *Olatxuko Laboreak* proiektua denaren lehenengo urratsa. «Mundu hori gehiago gustatu zitzaidan, eta apurka-apurka horretan formatzen hasi nintzen», azaldu du Bengoetxeak. Behin proiektua finkatuta, familiako baserria utzi eta beste bat hartu zuen Arrietan, alokairuan, 2013an. Lantokia ipini eta kontserbetan oinarritu zuen bere jarduna; gerora, gauza gehiago egiten hasi zen, hala nola marmeladak eta barazki-pateak. «Frutari aterabidea ematea zen helburua, hainbat modu eta formatan».

Orain dela urte bi, fruta-arbolaz betetako eta negutegidun lursail bat erosi zuen Gamiz-Fikan, bikotekideagaz, bertan lantegi berria eta baserria egiteko, «alokairuak ez zigulako inolako ber-

Familiagaz hasita
«Nekazaritzatik bizi nahi nuela jakin nuenetik, argi nuen lehenengo pausoak familiako baserrian eman nahi nituela»

Alokairua
«Lursaila erosi dugu Gamiz-Fikan, lehenagotik alokatuta genuenak ez zigulako inolako bermerik ematen etorkizunari begira»

merik ematen etorkizunari begira». Getxoko gazteak azaltzen duenez, mota horretako jarduna aurrera eramateko beharrezkoa da erregistro sanitarioa izatea eta autonomoetan alta emanda egotea: «Modu horretara azokaz azoka ibili gaitezke gure produktuak saltzen, baita denda txikietan eskaini ere».

KONTSUMO-OHITURAK. Gaur egungo gizartea oso azkar doa eta egoera horrek kontsumo-ohituretan eragina duela uste du Bengoetxeak: «Edozein lekutan edozer gauza kontsumitzeko aukera dago, eta horrek gure produktuak gizarteratzeko aukera gutxi ematen dizkigu».

Plazaz plaza eta azokaz azoka mugitzen da Bengoetxea kontserbak zuzenean saltzen, hala ere merkatu horietara joateko ohitura galdu egin dela dio. «Aste-akabuetan jende gaztea etortzen da, baina astean zehar erosleek profila nahiko heldua da. Horrek esan gura du jende gazteak beste modu batera kontsumitu eta jaten duela». Izan ere, elikadurari garrantzia eman eta jaten duguna zaintzen hasi garen arren, orokorrean oraindino erosketak supermerkatu handietan eta modu azkarrean egiten ditugula uste du nekazari gazteak.

Azokez gainera, komertzio txikiak ere egiten du lan. «Birtartekariak izan arren bestelako baloreak dituzte; asko eskertzen dute gureak bezalako produktuak izatea, ekoizpen diferentia nahi dute horiek, kalitatezkoa. Hortaz, astiro-astiro bada ere, harrera ona daukagula uste dugu», azaldu du. Era berean, ikastaroak ematen ditu Bengoetxeak: «Jendeak gero eta interes handiagoa du gauzak etxean egiteko. Guk kontserbak egiteko gure jakintza nahi duenarekin elkarbanatzen dugu, modu erraz batean». ◀

Idoia Ibarlucea Elosegui Berbalagun egitasmoaren dinamizatzailea Erandion

«Proiektuak onura ekar diezaieke euskara-ikasleei»

Beste urte batez Mintzalagun egitasmoa ipini du martxan Euskaltzaleen Topaguneak, oraingo honetan TÚtik GURA. Ongi etorri Mintzalagun mundura! goiburuagaz. Erandion, aspalditxotik egin legez, Berbots euskara-taldeak koordinatuko du ekimena, Idoia Ibarluceak azaldu digunez.

UNAI BREA ►

Bizkaian Berbalagun duzu Mintzalaguna. Ekimena ondo ezagutzen du Idoia Ibarlucea Elosegui erandiotarrak, Uribe Kostan hura koordinatzea zer den ondo daki eta. Oraingoan jaioterrian ere beteko du zeregin hori, Berbots Euskaltzaleen Topagunearen eskumenez.

Urte mordoaa daroa Berbotsek Berbalaguna antolatzen... Bai, 2006. urtean hasi zen Berbots egitasmoa dinamizatzen. Ordu-tik hona hainbat dinamizatzaile izan dira, eta Udala, Euskara Zerbitzua, Udal Euskaltegia eta ikastetxeak izan ditugu bidelagun. Ikasturte bakoitzean aldatu egin da talde-kopurua, baina izan dira urtez urte izena eman duten berbalagunak ere.

Zer zailtasun du Erandion euskara sustatzeak? Euskararen ezagutza erabilera baino handiagoa den herri guztietan bezala, euskal hiztunek zailtasunak dituzte egunero euskara erabiltzeko esparru guztietan. Euskaraldiari esker erabilerak gora egin du, baina hori ez da gizartearen esparru guztietan behar beste mamitu. Bestetik, askotan entzun ohi dugu gurasoen eta umeen arteko erabilerak gora egin duela; hala ere, gorakada hori ez da hain nabaria izan helduen arteko harremanetan. Horiei begira ere Gurasolagun programa dugu martxan, astero familiei zuzendutako taldetxoak daude, euren erritmora egokituta, eta eskolaren kanpoaldean edo parkeetan geratzen dira.

Zertan zabiltzate orain? Berbalagun egitasmoan izena emateko kanpaina egiten, ohiko bideetatik: kartelak, sare sozialak,



«Euskaraldiari esker erabilerak gora egin du, baina hori ez da esparru guztietan mamitu», dio Ibarluceak. HODEI TORRES

Zailtasunak

«Euskararen ezagutza erabilera baino handiagoa den herri guztietan bezala, euskal hiztunek zailtasunak dituzte egunero esparru guztietan euskara erabiltzeko»

Udalaren aldizkaria eta webgunea... Gaur egungo gizarteak egunero erabiltzen dituen bideak ere jarriko ditugu erandiotarren eskura: Instagram (@berbotseuskaraz) eta WhatsApp (621 270 546). Erandioko gaztetxo eta ez hain gaztetxoengana heltzeko erabili beharreko tresnak dira, eta adin-tarte horietara zuzendutako taldetxoak sortzeko asmoa dugu, haien ordutegi eta zaletasunei begira; ekintza osagarriak egiteko orduan, haien aisialdian euskara ere apurka sartzeko asmoz.

Euskaltegi eta ikastetxeetara ere joko duzue. Berbalagunak topa ditzakegu han. Hizkuntza bat ikastean, askotan mintzameneari kale egiten dugu, lotsagatik, beldurragatik... Berbalagun proiektuak onura ekar diezaieke ikasleei, astero ordubetez euskaraz lasai berba egin dezaketelako, presiorik gabe. ◀

Itzinaren magalean, Gorbeiaiko parke naturalean, atsedeen hartzeko toki paregabea:

ETXEGORRI landetxea



Amets egiteko logelak

Inguru ezin ederragoa

Tokiko produktu ekologikoak

www.casauraletxegorri.com

© 944 04 60 22/ 682 67 24 31

Urigoiti 10, OROZKO (Bizkaia)

TÚ -TIK GU -RA

ONGI ETORRI MINTZALAGUNOH MUNDURA!

Sustatzailea

euskaltzaleen topagunea

Antolatzaileak

berbots Berbalagun

Babesleak

berbalaguna

IZEN EMATEA: URTE OSOAN ZEHAR
labur.eus/berbalagunerandio | 621 270 546
berbalagunerandio@gmail.com

Zinez diot **Agur Etxebeste!**

Aupa eta agur kutunak

Hamalau urte igaro dira Aupa Etxebeste! eginez Asier Altunak eta Telmo Esnalek film luzeen zuzendaritzan lehen urratsa eman zutenetik. Tamalez, euskarazko gidoi gutxik izan dute halako harrera.

TESTUA: **IZASKUN RODRIGUEZ** ►

Altunak eta Esnalek askoren arreta lortu zuten *Txotx*, *40 ezetz* eta *Topeka* film laburrekin, baina arrakasta etxebestetarrek eman zieten. Euskaraz filmatutako lanek pantaila handian lekua izan zezaketela erakutsi zuten 341.462 euro bilduz eta Donostiako Zinemaldian Gazteriaren Saria jasoz. Tamalez, euskarazko gidoi gutxik lortu dute horrelako harrera onik, Moriartiren Handia-k baino ez du lortu aretoetara jende gehiago erakartzea.

Altuna eta Esnal orain dela lau urte hasi ziren pentsatzen Etxebeste sendiaren bizipenek bigarren atal bat ez ote zuten mereziko. Nagore Aranburu antzezle eta gidoilariarekin sortu dute *Agur Etxebeste!*, eta estreinaldirako leku aproposa aukeratu dute: Donostiako 67. Zinemaldiko Euskal Zinemaren Gala.

Lehen filmak gizartearen bizi dugun itxurakeriak, bekaizkeriak eta besteek baino gehiago izan nahiak zertara eramaten gaituen agerian jarri zuen, umorez. Familia etxean ezkutatuta, itxurari eusteko, hamalau egunez, 24 orduz. Orain, *Agur Etxebeste!*-n, gaurkotasan handiko gaiak dira ardatza, egoera su-



Agur Etxebeste!

Zuzendariak: Asier Altuna, Telmo Esnal.
Gidoilariak: Asier Altuna, Telmo Esnal, Nagore Aranburu.

Antzezleak: Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate, Paco Sagarzazu.

Iraupena: 90 min.

Urriaren 12, 13 eta 14an, 20:00etan.
Kultur Leioan.

Sarrera: 5 euro (astelehenean 3,5 euro).

rrealista bideratzen dutenak: politikarien ustelkeria eta emakumeen botere-ahalmena. Topiko asko erabiltzen dira, baina familiaz eta amodioaz ere hitz egiten dute sakon.

Patrizio Etxebestek alkatetza uztera behartuta ikusten du bere burua ustelkeriagatik, baina osasun-arazoak dituela esanez. Agintea ez galtzeko asmoz, Maria Luisa emaztea izendatzen du herriko lehen emakumezko alkate. Maria Luisak oso serio helduko dio lan berriari eta udaleko funtzionamendua goitik behera aldatuko du, Patriziorekin duen harremana eta etxeko giroa hankaz gora jarritz.

Elena Irureta da filmaren izar dirdiratsua, egoera larrienak eta irribarrea eragiten dizkiguna. Euskal Herrian ekoiztutako ikus-entzunezko produktuek kontsumituz gero, nork ez du antzezle zoragarri honen ahalmena ezagutzen? Berdin gertatzen da Ramon Agirrerekin. Oso bestelakoa da Iban Garateren kasua, antzezlan umoretsuak eta informazio serioa ETBn aurkezteko gai den gizon talentuduna. Paco Sagarzazu, aldiz, lau pertsonaia nagusietatik maitagarriena sortu du dudarik gabe.

Kamera aurrean familiartean badaude, kamera atzean ere kutsu bera sumatzen zaio ekoizpenari. Lehenik eta behin Altunaren jaioterrian, Bergaran, egin delako filmaketa, eta oraingoan bai, herriko txokoak dotore ikusten direlako. Adi, gainera, filmean rol txikietan agertzen diren antzezle ezagunei.

Pasa diren hamalau urteak azalean igartzen zaizkie protagonistei, baita gaizki egindakoa konpontzeko grina ere. Baina edozein gauzaren gainetik amodioa dagoela ez dute ahaztu etxebestetarrek. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 • 48991 ALGORTA
944 305 243 • 607 952 977
regaraizar@gmail.com • www.garaizar.biz

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Zubigane 4, SOPELA • 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com

Oinutsik

Podologia kontsulta

Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

☎ 94 404 74 20

📍 Zubigane 4, SOPELA

✉ podologiaoinutsik@gmail.com

Irakurrian **Fakirraren ahotsa**

Imanolen bizitza, fikzioz jantzita


«Mundua ez da beti jai/inoiz tristea ere bai...». Xabier Amurizaren hitzei Imanol Larzabalek jarri zien ahotsa. Eta pasarte horretan bezala, une on zein txarrak jasan behar izan zituen, argi-itzalak.

TESTUA: NAHIKARI AYO ACEBO ►

Harkaitz Canok Imanol Lurgain kantariaren kontuak dakartzkigu: Imanol Larzabalen bizitza fikzionatua. Nabaria da Canok informazio asko pilatu duela, dokumentazio lan itzela egin duela. Larzabalen bizitzak, eleberri bihurtuta, Euskal Herriko historiaren une gogorrenak birgogoratzeko aukera ematen digu: frankismoa puri-purian, errepresioa, erbesteak, militantzia, konpromisoa, mehatxuak... Urriaren 24an izango dute eleberria hizpide Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa, Villamonteko Kultur Etxean, Algortan, 19:30ean hasita.

Imanol Lurgain *Fakirra* ezizenez ezaguna denaren pozak eta miseriak erakusten dizkigu Canok. Bere bizitzan, zein eleberrian, oso puntu garrantzitsuak iruditu zaizkit Martuteneko ihesa eta *Arakisen* (Yoyes) hilketa. Bietan zeresana izan zuen eta bere ibilbide politikoa markatu zuten. Eta hortxe etorri ziren gatazka ugari, bai bere buruarekiko zein herriarekiko.

Canok fikzioa egin nahi izan du, baina errealistegia atera zaio. Nahiz eta izenak aldatu, badakigu nortzuk diren pertso-



Fakirraren ahotsa

Egilea: Harkaitz Cano
Argitaletxea: Susa
Urtea: 2018
Orrialde kopurua: 352
Jatorrizko hizkuntza: Euskara

naia horiek, nabarmenak da. Askotan, Lurgain eta Larzabal pertsona berdina dira. Ematen du irakurlea despistatu nahi duela. Militantzia, borrokaz, politikaz hitz egiten du. Baina *Fakirra* kantaria izateagatik zen ezaguna. Ez Dok Amairuren garaian askok abesteko hautua egin zuten militantziagatik. *Fakirraren* hasierako helburua horixe zen, baina ondoren konturatu zen musikatik bizi eta artista izan nahi zuela.

Arakisen hilketaren ondoren, haren omenaldian abestu eta gero, asko oldartu zitzaizkion: pintadak, mehatxuak, bertan behera utzitako kontzertuak... Sektore batek sekulan ez dio barkatuko hartutako jarrera. Lurgainek uste du gizartea berekin zorretan dagoela: kartzela, Pariseko erbesteak, militantziari emandako guztia, Sarrionandiaren ihesaldian parte hartu izana... Baina gizartearen zati batek ez du horrela sentitzen. Tamalez, garai hartan, Euskal Herria zuria edo beltza zen, erdibideak ez zuen tokirik. Alde edo kontra.

Liburuak, politikaz gain, beste gai batzuei buruzko gogoeak egiten ditu: Donostia, bizitza, mina, aita izatea (askotan aipatzen du), musika, denboraren joan-etorriak... Agian, Canok indar handiagoa egin izan balu horretan, errealismoa ez zen hain agerikoa izango.

Liburua irakurrita duda bat sortu zait: Canok asmatu egin du eleberria eginda, edo biografia bat idaztea hobea izango zatekeen? Zergatik ez saiakera bat?

Edozein kasutan ere, liburu gomendagarria da Euskal Herriaren historia kultural eta politikoa barrena bidaiatzeko, zeresana eman zuen kantari baten eskutik. ◀

beharsarea
Getxon lana euskaraz

Bestelakoak
Otros

Eskola partikularrak
Clases particulares

Hostalaritza
Hosteleria

Zaintzaileak
Cuidadores/as

Lana euskaraz egiteko jendea behar baduzu, edota euskalduna bazara eta lana bilatu gura baduzu
www.beharsarea.eus/Getxo

Virginia Díaz Arraunlaria

«Lan gogorra eginda, benetako ametsak lor daitezke»

Raspas del Embarcadero Arraun Taldeko Virginia Diaz kirolari getxoztarrak 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetan lehiatzeko txartela lortu du Ottensheim-Linzeko Munduko Txapelketako finalerako pasea lortuta. Aurretik, Europako txapeldun izan zen, lemazain gabeko biko modalitatean.

IKER RINCON MORENO ►

Europako txapeldun absolutua eta 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetarako txartelagaz. Zer balorazio egiten diozu 2019 urteari? Oso positiboa izan da; orain arte egindako lanaren eta egindako esfortzuaren isla da hori, eta emaitza oso onak lortu ditugu. Hemendik ateratzen dudana ondorioa da lan eginda ametsak lor daitezkeela, eta dena oso ondo atera da.

Ez zen erraza izango emaitza horiek lortzea. Sakrifizio handiak egin behar izan dituzu? Arrauna ibilbide luzeko kirola da, denbora behar da emaitza onak lortzeko. Hortaz, bai, egunero sakrifizioak egin behar dira, fisikoak eta mentalak; alde batean utzi behar izan ditut lagunak eta familia, munduko beste hainbat lekutan honetaz bizi ahal izateko.

Arraunean banakako skiffean hasi arren, lemazainik gabeko binakako modalitatean lehiatzen zabilta orain. Gogorra izan da aldaketa? Nire kideak, Aina Cidek, ababorretik egiten du arraun, eta nik, aldiz, istriborretik. Hala, bata bestearren arraunkadara egokitu behar izan du. Hasiera batean zailtasunak eragin ditu horrek, baina oso ondo moldatu gara elkarrekin.

Zelakoa izan da elkar-ulertzea kide berri horregaz? Nahiko malguak izan gara biak. Hasieran zalantza handiak genituen, edozein aldaketa gogorra delako. Nork bere errutinak ditu eta zaila izaten da horiek moldatzea. Hala ere, biak oso arin egokitu gara, oso langileak gara egunez egun eta horrek gauzak asko erraztu ditu.



Esker onekoa

«Egunero sakrifizioak egiten ditut aurrera jo ahal izateko; hala ere, nire inguruan dagoen taldetxoagatik izango ez balitz, ezinezkoa izango litzateke hori: Basque Team, nire kluba, nire entrenatzailea eta, batez ere, nire familia».

Ottensheimeko Mundialeko finalaurrekoan hirugarren postua eskuratu ondoren 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetarako txartela erdietsi zenuten. Zelan bizi izan zenuen proba hori? Estropadan zehar arraun egitea baino ez dugu buruan, den-dena automatizatuta daukagu. Helmugara heldutakoan eta klasifikatuta geundela ikusterakoan, orduan bai, sentimendu denak azaleratu zitzaizkigun. Emozioz beterik geunden eta ni negarrez hasi nintzen. Orain arte egindako ibilbide osoa etorri zitzaidan burura; emaitza hori lortzeko urteotan egindako guztia gogoratzen duzu une horretan.

Zein aurreikuspenagaz egin zenioten aurre Mundial horri? Ordua arte lortutako emaitza denak ikusita (munduko kopa eta Europako txapelketa), normalena zen klasifikatzea. Hala ere, Joko Olinpikoen sailkapenean sartzeko mundial bat maila handiko lehia da; talde denak oso prestatuta daude eta ezinezkoa zen ezer ziurtatzea. Aurreikuspena sailkatzea zen, bai, baina ez ginen ezertaz fio.

Zelan prestatuko dituzue 2020ko Joko Olinpikoak? Hemendik aurrera kontzentrazioz kontzentrazio ibiliko gara, etxetik kanpo. Gainera, laster Japoniara joango gara lehia izango den inguruak ezagutzera. Hortaz, urte gogorra izango da. Gorenera heldu nahi dugu, eta horrek esfortzu, lan eta sufrimendu handia eskatuko du.

14 urte zenituela hasi zinen arraunean; orduan imajinatzen zenuen maila honetara helduko zinela? Ez, inondik inora. Txikitatik amets hori izan dut; betidanik izan ditut kirolak gustuko eta Joko Olinpikoak zirenean telebistan ikusten nituen beti. Hala ere, ez nuen sekula imajinatuko horren urrunera heldu ahal izango nintzela.

Zer eskaini dizu arraunak zure bizitzan? Bizi-eredu bat da; horretan dihardut. Maila pertsonalean, nire bikotekidea arraunari esker ezagutu nuen. Bestalde, arrauna eta kirola bizitzan aurrera egiteko lagungarriak dira; diziplina eta sakrifizioa zer den erakusten dizute, eta hori oso lagungarria da... Kirola lan-munduan sartzeko eta bizitzan suerta daitezkeen arazoei aurre egiteko gauzarik lagungarrienetako bat dela uste dut. ◀



nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON
1977. ETIK

**GURE
ETXEA**
taberna

Caja de Ahorros, 14 | Romo-Getxo | T. 94 463 68 80

f Gure Etxea Taberna @EtxeaGure

Higinio Rivero Piraguista

«Modalitatea aldatu nuen Jokoetan lehiatu ahal izateko»

Higinio Rivero Tokioko 2020ko Joko Paralinpikoetarako sailkatu da piraguismo Szegegedeko Munduko Txapelketan. Basque Teameko kirolari getxoztarrak zazpigarren amaitu du VL2-200 metroko finalean eta hori nahikoa izan du datorren urteko hitzordu handirako pasea bereganatzeko.

IKER RINCON MORENO ►

Tokioko 2020ko Joko Paralinpikoetarako txartela erdietsi zenuen abuztuan Hungarian izandako pistako piraguismo Mundialean. Zelan egin zenion aurre lehia horri? Abuztu osoan sukarragaz ibili nintzen; eztarrian bakterio batzuk nituen eta antibiotikoakaz nenbilenez, ezin izan nuen asko entrenatu lehiaketan den-dena emateko. Azkenean nahiko ondo osatu nintzen eta aurreikus nezakeena baino emaitza hobea lortu nuen. Lehenik eta behin, helburua finalean sartzea zen; zaila zen hori, baina azkenean lortu egin nuen. Ondoren, bertan sorpresa hutsa izan zen; haizea zebilen, eta ez genekien onuragarria izan zitekeen edo ez, kalearen arabera. Azkenean, gaitz erdi, zazpigarren heldu nintzen helmugara, eta herrialde batek errepikatu zuenez, seigarren sailkatu nintzen.

Zer sentitu zenuen helmuga zeharkatu zenuenean? Hasiera batean ez genekien zer gertatu zen, ezta zer pentsatu ere. Ez ziren denborak agertzen, suposatzen dut *fotofinisha* aztertzen zeudela, eta luze jo zien zuten emaitza esateak. Azkenean zazpigarren postuan heldu nintzela jakinarazi zuten, baina seigarrena taldetan. Hala, Joko Paralinpikoetarako txartela lortu nuen. Orduantxe poz-pozik jarri nintzen; urte hauetan denetan egindako lan gogorraren ordainsaria izan zen niretzat.

2016an eta 2017an maratoiaren modalitatean munduko txapelduna izan zinen, baina orain esprintean lehiatzen zara. Zer dela eta aldaketa hori? Inguruotako klub denek maratoia- ren alde egin ohi dute, ez dagoelako pistarako azpiegitarik.



Aurkari nagusiak

«Brasilen arraunlari oso onak daude, azpiegitura oso onak dituzte Rio 2016ko Joko Olinpikoen ondorioz, eta apustu handia egiten ari dira Joko Paralinpikoetan. Horiek dira menderatu beharreko aurkariak. Ondoren, Portugal eta Hungariakoak daude, beti oso indartsu ibili dira piraguismoan».

Hala ere, kirol olinpikoa ez denez, modalitatez aldatzea erabaki nuen Joko Paralinpikoetan lehiatu ahal izateko.

Gogorra izan da aldaketa hori? Bai, lan egiteko moduak guztiz ezberdinak dira batean eta bestean. Aldaketa fisikorako lan handia egin behar izan dut, masa muskularra handitu potentzia irabazteko. Kontrara, erresistentzia galdu dut. Aldaketaren lehenengo urtea zaila izan zen, bai.

Zelakoak izan dira entrenamenduak? Hasiera batean Plentziako piraguismo taldean entrenatzen nuen, baina ondoren Barrikakora aldatu nintzen esprintean jarduteko nire entrenatzaileagaz. Bertan entrenamenduak askoz ere espezifikoagoak egin genitzakeen. Gainera, aurtan apustua egin eta Sevillan eman genituen sei hilabete, neguan uretara jaitsi ahal izateko inolako arazorik gabe.

Tokioko Paralympic test eventean ibili zara egunotan. Datorren urtean aurkituko duzunaren aurrekaria izan da hori? Bai; munduko lehenengo hamar sailkatuoi egin ziguten horretarako gonbitea. Hala, 2020an izango dena beren-beregi probatzeko eta informazioa batzeko aukera izan dugu, baita izan ditzakegun arazoak identifikatzeko ere.

Zelan hasi zinen piraguismoan? 2013an izandako istripua- ren ondoren errehabilitaziorako zerbitu egin gura nuen, baina hankak ezin nituen ondo mugitu. Pentsatu egin nuen, eta piraguismoa gustuko neukanez, horregaz hasi nintzen. Parakanoa edo egokitutako piraguismoa zegoela jakin aurretik izan zen hori eta asko lagundu dit bizi-kalitatean hobetzeko.

Zer ezberdintasun dago piraguismo «konbentzionalaren» eta parakanoaren artean? Parakanoan dihardugun pertsonok ez- gaitasunen bat dugu. Bestalde, arautegiak dioenez, piragua za- balagoak eta egonkorragoak izan behar ditugu, oreka manten- tzea zailagoa delako guretzat. Sailkapenerako erabili dugun ontzia piragua polinesiarra da, alde batean patin moduko bat daukana oreka ziurtatzeko. Gutako asko ezin gara belauniko jarri piragua konbentzionaletan; hori dela eta, ontzi hauek era- biltzen ditugu. ◀

BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolenkartea

Mundukatuak Tokio

«Eguna amaitzerako nekatuta ez bazaude, ez zaude Japonian lanean»

IKER RINCON MORENO ▶

Goi-mailako ikasketak amaitu eta Abokatutza Azterketa Estatala gaingitu bezain laster, atzerrian urtebete eman gura zuela argi zuen Olatz Garaizar gazte algortarrak. Hasi-eran Australiarako bidea hartu gura zuen arren, horretarako bisak agortu zirela eta Japoniara salto egitea erabaki zuen mutil-lagunagaz, aukera «paregabea» zelakoan. Joan den otsailaren 28an mailetak hartu eta Tokiora joan zen, munduko hiririk populatuenera. «Gure abentura herrialdeko hiriburuan hastea erabaki genuen, hura tokirik biziena zelako uhartean». Japonieraz berba bi bakarrik jakin arren, ez zitzaion batere kostatu lana topatzea, aukera asko baitago bertan. Brasildar jatetxe batean zerbitzari dabil gaur egun, eta apurka-apurka lanerako berba garrantzitsuenak ikasi ditu, «nahikoa bezeroei ulertzeko eta haiekin hitz egin ahal izateko». Hala ere, aitortzen duenez, oraindino mugikorraren itzul-tzailea da bere «lagunik onena» japoniarrakaz harremanak egiteko, «bertokoez ez dakitelako ingelesez hitz egiten».

Arroza eta pasta dira Japoniako gastronomiaren oinarria; *ramen*-a jaten dute ia egunero eta *sushi*-a edo *nagiri*-ak dira haien ha- maiketakoak. Era berean, *kawaii*-ak eta itxura polita duten janari gozoek zorutzen dituzte. Prezioari dagokionez, orokorrean janaria garestia dela dio, «fruta eta barazkiak batez ere; sandia txiki bate- gatik hamazortzi euro ordaintzea normala da». Harrigarria egiten zaio ere edonon aurki daitezkeela edariak erosteko makinak, «ber- din dio tenplu baten barruan edo mendi-puntan egoteak, han egon- go dira makinok zure zain». Teak nagusi direla dio Garaizarrek, baina alkohola erregulartasunez edaten dutela azpimarratu du: «Sakea edan ohi dute topaketetan, baita HighBall-a ere (whiskia sodagaz)». Eguraldiari dagokionez, «zoroa» dela azpimarratu du; udan bero handia egiten du eta montzoi- en garaian euri asko egiten du. Tifoia ere badira bertan, «aurten hamazazpi daramagu; haize itzela egiten du eta euri-zaparrada handiak daude, garraio publi- koan arazo handiak eragite dituztenak».

Kontraste handiko herrialdea da Japonia duda barik, leku tradi- zionalek punta-puntako teknologiaz bat egiten dutenak. ▶



Olatz Garaizar Gomez

Nongoa
Algorta.


Adina
25 urte.

Zertan dabil
Working Holiday Visa
aprobatzen.

Ikasketak
Zuzenbide Gradua eta
Abokatutza Masterra.

Noiz heldu zinen?
2019ko otsailean.

Noiz arte bertan?
Printzipioz, datorren
urtera arte.



Lurraldea
Japonia.

Azalera
377.915 km²

Hiriburua
Tokio.

Biztanleak
126.310.000 (2018).

Hizkuntzak
Japoniera da
hizkuntza nagusia.
Hainbat alfabeto
erabiltzen dira: kanji,
kana-ren bi aldaera
(sinplifikatuak),
latin alfabetoa eta
greziarra, Fisika eta
Matematika arloetan.
Ainuera eta
ryukyuanera ere hitz
egiten dira, eremu
txikietan.

Moneta
Yen.

Txangoak Elantxobetik Ogoñora

Bermeo, Laga eta Matxitxako bistaratzeko talaia

TESTUA ETA ARGAZKIA: MARIA GOROSTIOLA LASHERAS ▶

Itsasertzeko mendi baterako ibilbidea dugu hau, talaia naturala, mendizaleen zein eskalatzaileen topalekua: Ogoño lurmuturra. Gailur bitara igotzeko aukera dugun arren, Ogoñoko begiratokia aukeratu dugu oraingoan. Goazen bada! Elantxobeko hilerriaren eta ur-biltegiaren ondoko aparkalekuan utziko dugu autoa, betiere etxeetako sarbideak errespetatuz. Kotxe asko ez dira kabitzen bertan eta ezin dugu gurea nonahi utzi; auzokideak kontuan hartu behar ditugu! Hilerriaren pareta ezker aldean daukagula, hormigoizko pistatik igotzen hasiko gara; etxeek inguratzen gaituzte igoeran eta eskumatara begiratu gero, Kantauri itsasoaren bista ederrak dauzkagu bide-lagun. Zuzen jarraituko dugu zurezko seinale batez topo egin arte, eskalada araututa dagoela esaten duena, hain zuzen ere (7 min). Urdaibai ezkerretara dagoela markatzen digun postea ere badago bertan, marka zuri eta horiakaz (PR) ibilbide txikia dela adierazten digutenak; oso garrantzitsua da horiek kontutan hartzea. Ibilbide osoan zehar ikusiko ditugu eta, nahiz eta ibilbide zaila ez izan, gure helmugara ailegatzeko lagungarriak izango dira.

Ezkerretara doan bidea hartuko dugu, bidezidorrari jarraituz eta haritzaz inguratutako ur-putzura ailegatu arte (13 min). Denbora asko galdu barik, putzua eskumata-



Malda
282 metro.

Denbora
30 minutu inguru.

Zailtasuna
Erraza, umeakaz joateko modukoa.

ra utzita, aurrera egingo dugu; ur gabeko putzua da gaur egun, eta euria egin arte itxaron beharko dugu behar den bezala ikusteko.

Haritzak beharrean koniferoak dira orain bidean nabarmentzen direnak; zuzen jarraituko dugu hartxingaz beteriko bide batek gurea zeharkatzen duela ikusi arte (15 min). Eskumatik abiatuko gara urrunetik ikusten dugun bidegurutzera ailegatu arte, bertan egurrezko seinaleari egingo diogu kasu, eta Ogoño markatzen duen bidetik jarraituko dugu. Nahiko laua den bide batetik goazela, beste bidegurutze bat aurkituko dugu, eskumatara karobia dagoela adierazten diguna, baina guk ezkerretara joko dugu Ogoño dioen ibilbidetik (17 min). Eukaliptoak bidean gailentzen direla, gora jarraituko dugu eskumatara dagoen bidegurutzeari uko eginez; Atxurkulura eroango gaituen bidea da hori. Zuhaitzen sustrai sendoek bidezidorra zeharkatzen dute alderik alde, eta aurrera segituko dugu seinale hori bat aurkitu arte, leku malkartsua dela adierazten digu (23 min) horrek. Marka hori eta zuriei jarraitzen diegun heinean, lur-eremua ere aldatuz doa eta hemendik eta gailurrera arte, kareharria izango da gure oiniek zapaltzen dutena.

Konturatu orduko Ogoñoko talaiaaren gailurraren gainean egongo gara (30 min), eta besteak beste Matxitxako, Laga eta Bermeoko ikusmirakaz gozatu eta gero, egindako bide beretik itzuliko gara aurora. ◀

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



Itzala

Zein da mamuaren itzal zuzena?



Zu bai Hamalau!

Irudi bi hauen artean hamahiru alde daude. Ikusten dituzu?



Zikulu-saltsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artetik zeinek ostu ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.




Zenbait pista:

- Begiak zabal-zabalik ditu
- Belarriak ez ditu tente
- Ez da iluna
- Arrautzak erruten ditu
- Zomorro txikiak jaten ditu
- Bere espeziean bakarra da
- Ez da narrastia

Labirintoa

Lagundu erroiari zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu beharra dagoela, ezker, eskuma, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak berben arteko tartekak dira.



Flashback **Plentziako futbol-taldea 1926**

UNAI BREA ▶

Sociedad Deportiva Plencia futbol-kluba 1925ean sortu zen, urte batzuk lehenago kirol horretan hasitako hainbat mutil zituela taldean. Bereziki aipatzekoak dira, garai hartako kronikei jaramon egin behar badiegu, Plentziako Aurrera taldeak lortutako garaipenak, Athleticen ordezkoen aurka lortutakoa barne. Azkenik, SD Plenciak hartu zuen herrian futbolaren lekukoa, eta oraindino haren zelaia den Errotabarrin partidu ugari jokatzen hasi ziren. Argazki hau 1926an jokatutako norgehiagoka baten aurretik egindakoa da. Zoritxarrez, ez dugu jakiterik izan zein talderen aurka jardun zuten plentziarrek. ◀

ARGAZKIAN:

Zutunik, ezkerretik eskumara: Jose Maria Unibaso *Joma*, Loren Torrontegui, Jose Maria Garay *Busca*, Jose Luis Ibarra, Juan Gardoqui, Isidro Garay *Isidrin*, Luis Milicua, Angel Montero, Eustaquio Conde

Jesarrita, ezkerretik eskumara: Luis Mandaluniz, Jose Maria Ecevarria *Arretaño*, Ignacio Larraudogoitia, Jose Bareño



DAVID CRESTELOK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



TESTUA
Paule Ixiar Loizaga

DOINUA
*Arratsaldeon ta
aupa zuek*

ARGAZKIA
Hodei Torres

Goi mailako alderdia

*Zaindu gabeko espazio hutsek
ikus daiteken modura,
sufritu ohi dute denbora (e)ta
naturaren higadura.
Estolda batek, adierazi
dezake lurren lotura,
edo bereizi publiko eta
pribatu arteko muga...
Nork du zaintzeko ardura?
Gune hau beste askoren eran
ahantzuran geratu da..*

*Paretetako kartelak dira
botere adibideak,
argitan utziz adierazteko
batzuen eskubideak.
Bestalde, margo aritu dira
Erandion herrikideak.
Askok kritikatu arren bertan
islatutako ideiak,
Ez al gara ba libreak?
Nork bere eran hautatu ditzan
Hitza hartzeko bideak*

*Ate gorri parean bizkarrez
pertsonek bakarra tente.
Irakurtzen denez, biltegia
dago Udalaren menpe.
Pareta aldetik, belardi bat
hazi al da derrepente?
Nahiz (e)ta lehen begiradan asko
geratzen den ikusteke,
Detaile txikiez bete,
eta ezereza den lekuan
asko ikusi daiteke!*

ALBE**Algortako
Bertsolari
Eskola**

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa

Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru ikuskizunetako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu.

Hiru emanaldietako batera joan gura baduzu, urriaren 8a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein ikuskizunetarako sarrerak gura dituzun adierazi):
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Sariak

Izar



Umeentzako antzezlan, urriaren 11n Muxikebarrin. Getxoko 37. Antzerki Jardunaldien barruko ekitaldia.

Ghero, azken euskalduna



Euskararen historiaren eta etorkizunaren gaineko antzezlan, urriaren 13an Getxoko Muxikebarrin.

Ulisesen bidaia



Gorakada konpainiaren umeentzako antzezlan euskaraz, urriaren 20an Sopelako Kurtzion.

Zozketa

Irabazi kiropodia-saio bat zure oinentzat

Oinetako kailuak kendu eta atzazalak txarto haztearen ondoriozko gaitzak arintzeko, zozketa honen irabazleak kiropodia-saio batez gozatu ahal izango du Sopelako Oinutsik podologia-kontsultategian. Gaurko mina desagerrarazi, eta etorkizuneko lesioak prebenitu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 16a (eguztena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (adierazi zozketan parte hartu gura duzuela): hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



HIRUKA EGUNA

AZAROAK 16 GORDE DATA!

